

EUSKERA

EUSKALTZAINDIA'REN LAN ETA AGIRIAK
TRABAJOS Y ACTAS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
TRAVAUX ET ACTES DE L'ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

ARKIBIDEA

«USAURI», SCHUCHARDT IZENEKO SARIA, 1929'AN
IRABAZI ZUEN IRAKURGAIA. ANABITARTE ' TAR
AUGUSTIN

NOMBRES VASCOS DE LOS ESPACIOS INTERMEDIOS
ENTRE CASAS
Bonifacio de Echegaray

OBSERVACIONES SOBRE LA ORTOGRAFÍA
DEL VASCUENCE
H. Gavel

VERBOS COMPUSTOS, FACTITIVOS O CAUSALES
Eguskitza

LOS SUFIJOS BEL, PEL: BIL, PIL, MIL
Eguskitza

ESTUDIO DE SÍNCOPAS DEL VASCUENCE
Resurrección María de Azkue

DOCUMENTO INTERESANTE, MANUSCRITO
DE P. BROUSSAIN
Resurrección María de Azkue

BILBO'N
Euskaltzaindia'ren etxean
Ribera, 5

DONOSTIA'N
San Iñazio'ren Gutundegian
Garibay, 28

EUSKO-ARGITALDARIA
Banco de España, 5
BILBAO - 1930

VI

A R A T S E A N

Ez dugu esan Josune jaien auregunean Irun-go sendalariari zai zegokionik. Ortz-agñiak antolatzeko batean izketatu ta aureko aratsalde artan utsik egin gabe etoñiko omen zan; ez, ordea, etoñi. Ta naiz Josune asko zekian neska azkaría izan ta ixil-poltsa baño ezkutuago bere gurariak gorde, ala ere, ederki igarí zezaiokean aren utsak eman zion laría, lenengoz, ta atsekabea gero.

Baño... Karmele sendalariaren adiskide-kidea iza-ki ta arek egingo zion idazkia—ta egin ere bai—berez deituko balio bezela.

Ori zala-ta, ereslariek beren eginkizuna bukatu zutenerako, aratsaldeko zortziretan, sendalaria «Tukulu»-eneko arötzetxean zan. Zortzietatik amáretako tarte luze artan nai bezelako lasaitasunarekin apaldu zitekean, amáretatik auréra zanko-jokoari eragin bear balitzao ere.

«Tukulu»-eneko ostattuan, beraz, jendea ba'zetoñen etxoa aña. Lenbiziko bizitzan maiak jañiak zeuden. Itsasaldiak ostattuko atea jo ta gazte-jendeak mañadian gora palax-palax lekuñe zabala bete. Mai luzea erdian —iru edo lau alkañi josiak esan zitezkeanak—: onen-bestetxalí, ainbeste lagunen tokia. Bai, asieran; ez, ordea, geroxeago soñuaren ondotik etoñi ziranekin:

«Lertxunak leño-leño
bidean doazi
beroaren lekurat
otzaren igesi».

Bakoitzari txistor mutur bana ematekotan elizari bira osoa egiteko soka.

Baztareko gelan bost lagun zeuden apaltzen: Irun-go sendalaria, Bedoya-ko ziñaldaria (notarioa), Karmele ta Durango-ko senar-emazteak, Amerikaren urteak eginda, etorri beria. Josune-k ez zien lagundu gau artan txotx beriko apaldaferi. Belaria ikustea nai ez ta burua erakutsi. Oñengatik, sartu zaneko batean, Bedoya-ko ziñaldariak, zerbaitek zekianak, belaíraturu zion:

— Ez nau aritzten oñenbeste arretaz zure ortz-aginak antolatzeak. Atzenean dana beretzat izango bai-du.

— ¡Oi, ene! — ta musu-gori zegoanak marubi antza artu.

Norbaitek ojegin zuan :

— Baño adizu, Katalin : ate ori itxi, gortuko gaitzute.

Aldameneko «tropa» beriketa bizian zegoan: azpilik, labanak eta ontzi guztiak, gizonen minganak ezik, izketa nastua zerabilkiten. ¡Ura eromena! Neska-me, ontziak eskuan, sartu bakoitzean, etxera lertzen zala ematen zuan ta ikaratuta uzten zuten beren jardun gozoa gela-bañengoek.

Senaràk emazteari ematen zizkion ekaritakoak; ziñaldariak artu ta auñenekoz Karmele-ri eskeñi. Senaràk emaztea bezin ondo, ziñaldari gazteak Karmele zaitu. Irun-goak destaña egiten zion geienean neska gazteari; onek beste ainbeste, eta alkarri zirika beren aspaldiko ezaguera erakusten zuten:

— Ar ezan, nai ba-dun.

— Eskarik asko, gizontxo.

— ¿Uste al dun beatzak éretek gogoa dutala?

— Gaitza litzakek, gazte: ire oñiazeak min emango lidake neri ere; ire odol tanto bakaírarengatik, titare añako malkoak ixuriko nizkikek; baño gaitz ofek iñ-

ren agin onak érrietaik kentzea eragotzikorral balikek, poztu egingo nindukek, to.

Ziñaldariak par, senar-emazteak par eta guztiak par; batez ere andreak gogoz egiten zuan iria :—«*Qué gracia tiene la señorita*»—ta ostera iríari erazota bere gorputz lodia dar-dar jartzen zuan.

Sendalaria, oregatik, ez zan alki ta beste erantzupen bigunagorik abora etori ez ta auxe bultzatu zion :

—Ire abokoak beintzat, ez lidateke lan aundirik emango—alegia onik ez zuala.

—Ematea bat, egitea beste bat; lan geiegitxo izango ukek aste baterako—bereala pasa zion neska gazteak.

Aparia, beraz, atsegizenez zijoan bi gazteeri eskefak. Gure amerikanak lenengoa asi ta azkena bukatzen zuan pañez :—«*Caray, ori don emakumea*».

Árotzetxetan askotan gerta izan zaigu otorduetan guk ezagutzen ez ditugunak auréan eukitzea. Itzegin nai genuke, baño zer esan jakin ez; edo itzik egiteko gogorik ez, baño iñork guregatik iritzi okerik izan ez dezan zerbait esatera leiatzen gera. Ta ba'dakigu bein baño geiagotan guk uste txañez artu genuan maikidea, ez zala guk uste bezin loloa; ezta guri iruditu bezelako adimen kamotza; ezta ere guk susmatu añako zakaña. Askotan, uste ez genuala, gizon atsegina yayoak arkitu izan ditugu, gero edozein tokitan ikusita laguntzat artu gaituztenak. Baño egia da arpegiz-arpégi lenengoz jartzean zer nola ibili bear dugun ez dakigula, ita ontzi batetik biak artu beará!... zu lenbizi, ni azken. «Ni lenbizi» txaña izaten bai-da zer artu ez dakigula.

Ordea, danetan okeíena bi adiskide ta zu batean topatzea. Ba'diardute berek beren artekoz. Zu, zure irudian, kaxkartu egiten zera. Aiek zure izketaren bearik ez dute. Zu aienean ȝsartuko al ziñake? Eta zu

ixilik zaudela *gez* al dute usteko *zuk* aien gauzak jakin gogo duzula?

Esan dugunez, San Juan-añats artan «Tukulu»-eneko ostattuan, baztaréko gela txikian apaltzen ari ziran bost lagunek, ederki alkarratzen zuten batabesteak. Bedoya-ko ziñaldari leialak oraindik dar-dar zeukan besoa Karmele-ri edontzian sagardo txinpartuna botatzen zegokiola.

—Ik diok—Karmele-k zion—sagardoa Oyartzungoa dala, ardoa Eriojakoa ta arkumea Napañokoa. Sagardoaz eta ardoaz ezin nezaket ezere esan; baño au Napañó-arkumea danik ez dut uste. Danetara ere, iru gauz oriek egiztatzen, orien jatorria ongi azaltzen, naiko lan izango ükek.

—À neska—erantzun zion sendalariak—«fedea» ez da beñere galdu bear.

—I sinistuna nonbait.

Ta aldamenekoen zarata aundia zala-ta, atea tarte izanagatik, sendalariak ez zuan ondo entzun aal izan, ta galdegin zion :

—¿Nor?

—I.

—¿E?

—I.

—¡A!

Ustegabeko «i-e-i-a»-k ederki jolastu zituán.

—A, motel, izketan aztuko zaiguk—bukatu zuan Karmele-k.

Sendalaria, itxuraz ez yayoenetakoak, bere ogeitasei urtekin iñoren auréan sendo itzegiteko ajolik ez dutenetakoak zan. Ta mai-buru batean jañita (bestean ziñaldaria), toki arek bere jakintasun kaxkaña zabaltzea eskatzen ziola uste izan zuan. Ta puskatik puskara, jakiarekin ari zala, bai jateko, bai itzegiteko, erabili-

aldi polita ematen zion aboari. Ta guztiaz jardutzen zan : edozein uskeria zala, goien-goieneko burutsuen arloa zala; baño an begi-bakarik ez.

Bein edo bein ezagutzen ez zuan ziñaldariari begiratzen zion, batez ere ongi ez esanen bat iruditzen zi-tzaionean, ordurartekoan ixilik zegoan gizona bai-zan.

Ta ezer geiago gogora ez zetorkiola, neskameari —orduan etorítakoari—zerbait esatea oīu.

—¿Zuk ez al duzu dantzatu bear gero, Katalin?

—Ez nik.

—¿Edo Miren-en alaba al zera zu ere?

Ta oīa non arlo bería abora etori, oīo ixtar baten atzetik.

—Añitzekoa da—asi zan—orain eríixaetan dantza lotua dala-ta asi diranekin. Toki guztietan or ari dira apaizak iñon diran eragozpenak berek baltseoa deitzen dioten dantzari jartzen. Ba'dira eríak apaizek alkateengandik iñor dantza lotuan ari ba-da musika ixiltzea lortu dutenak. Batzuetan sermoiak, bestetan Miren-en alaben baziunetan. ¡A, Miren-en alabak! Oīa, ni katolikoa naiz, ta egizko katolikoa, ori auñeztik aitortu nai dutan gauza da. Baño Miren-en alabetan izugarrikeriak egiten dituztela esateko ez dut batere kezkarik.

Ardo txuñupa bat artu ta jañaitu zuan :

—¡A, neska gaxoak! Mutil batekin alkar artuta bein ibiltzea naikoa dute Miren-en alabetatik botatzeko. Ba'dira bein alde eta ajolik ez dienak. Beste gixaxoak, dantzatu nai lufekenak, or egoten dira botako dituztelaren bildurez. ¡Aien lotsa ori gertatuko balitzaiet! Orez gañera lengo adiskideak, beste alabak, asañetuko litzaizkie ta Miren-en alaba beriz izateko, orenbeste igandez penitentzi-kandela eskuetan egon bear izaten dute.

Iñork erantzun ez ta auéra zijoan.

—¿Ote dakite apaiz jaun oriek gaztetasuna zer dan? Gaztetasunari jolasa bearékoia zaio ta ¿esango al didate neri, ba', neska mutil bikoak alkár artuta dantzan egiteagatik oben egiten duala ere? Dantzan, soñuak, neuriak eta txotiltasunak ondo baño obeto artzen dute irurek alkafékin, ta gero neska-mutilen ibile-rak bateratuta... gauzarik egoki-egokiena, edería ta atsegíñenetakoia da, batez ere dantzan ondo jakinez geroz. Nik ez dut obenik ikusten. Artea apaizek, dantza lotuan aritu ote diran aitortzen beartzan dituzte.

Onetan Durango-ko gizonari berbaldia etoñi zitzaison :

—Autortea be', neuk ez dakit jenteak zer autortu bearik daukon. ¿Ez al dira geu bezelako gixonak abadeak? Gixonak gixonari, ¿zer dala-ta esan bear dautso egin dauzan obenak? Parkamena, parkamena... Jangoikoak emongo dau gura ba-dau.

«Neu...»

Ta ementxen bukatu zan mutur beltzaren elea. Bera asi zanez geroztik emaztea kopetilundi zitzaison. Lengo pañak ederki aztu zitzazkan. Uste zuan, noski, argi aren azpian zeudenak ez zirala bere senaña bezela uŕutiko baso ta lur landuetan ia kristaurik ikusi gabe urte ta urteetan egonak, lan eta lan. Gaizki artuko zutelaren bildurez, oraintxe «neu» zenbat urtez geroztik aitortu ez zala esatera zijoanean (gazte-gazterik Bizkai ederatik Amerikatu zanez geroztik) emazte iztuak jo egin zuan ukalondoarekin alboan, ez ikusteko eran.

Ziñaldariak igarí ta, Karmeles-ri maiteki maats mordo polita eskeñita, bere aldiroz erantzun zion sendalariari.

—Gokaiztoak (deabruak) asmatu duan «invento»-rik onena—onena beretzat, txañena bere atzaparetan

aíapatzentzuanarentzat—dantza lotua deritzat. Irun-go sendalariak ez dit ukatuko neri dantza askoen gaiztakerien iturburua dala. Oso eíaza da dantzaren, soñua, neuría ta txoltiftasuna, gazte bat uste okeñik gabe artaratzeako naikoak dirala esatea; ez, ordea, bertatik gogo txañik gabe ateratzea. Sendalariak esan dituan gauzaz gañera emakumea besoen artean artzen jaíti lezake atseginbide orientan. Au ezin ukatu liteken egia da. Gizonak gizonarekin ez du beñere dantzan egiten. Emakumeak emakumearekin... besterik eziñean. Galde zaiez, edo zeroñek ondoena jakingo duzu, dantzari puñukatua zeranez geroz, ¿ez al da atsegiañago neska polit batekin itxusiakin baño dantzan egitea? Dantzara joatean dantzari ona baño emakume ederña nai du gazteak. Ta dantzari onarengana ba-dijoaren, ba'liteke bi gorputzak alkañi obeto aditzen diotelako. Batzuek naiago dute polita-lela baño, polita ez dana baño emetasun geiago erakusten duana. Esan dutanarekin eta ez luzatzearen esan gabe uzten dutanarekin, auxe esan nai nizuke, lengo soñu, neuría ta esandakoaz gañera, emakumea norberarekin artzeko gogoa izaten dala. Ta ofelako atseginbideetan...

Ziñaldariak bere aburua eman zuan, guziek entzun zioten eta bakoitzak esandakoaz bere iritzia zeukan. Ziñaldariak lasai ta iria ezpañefan bukatu zuan. Baño mai-burutik mai-burura botatako alkañen auñezkako usteak, azalpena eskatzen zuten ta sendalaria ez zan erdipurdi geldituta ondo zegoan gaztea, ta jardetsizion :

—Nik gauza bat aítortu bear dut lenengoz : asko dantzara txañera dioazela. Ori egia da, ta egunero ikusi ta entzuten ditugunekin ezin ezetsi liteken gauza da. Baño dantza berez animarentzat kaltegarí danik ez dut uste; ori zein asmoakin joaten dan. Asmo liki-

tsakin dijoanak, ořek aitortu bear luke bere gaizki egiña, ez dantza-zaletasun utsez dijoanak. Gauza asko dira ez onak, ez txařak, ez diranak; zein alderditik artzen diran ořelako edo alako izaten dira. Baño nik adierazi nai nizukeana, dantzan batere obenik egin gabe egin ditekela. Nik uste ori daukat, nik nere buruan ikusten dutalako. Ni dantzari puřukatua naiz, egia diozu, ta dantza utsagatik askotan aritzen natzazu. Nik iñork dantzara atera nai ez dituan neska gi-xaxoak, neronek askotan eramaten ditut nerek, politak ez dirala ikusi ta ondo edo txarki ba-dakiten jakin gabe. Zu zerori dantzan ibilia zera, ta, edo zure ustea okeŕa da ala zuzena ba-da ere zure naiarekin ez du bat egiten. Ez dut uste esandakoa gaizki artuko duzunik, ez dut izan nai zu asaŕetzea, zu gizon adeitsua ta jatoria zatzaingularik.

Jarduna auŕera zijoan.

—Alaxe da—bare-bare ekin zion ziňaldariak—dantzan egin izan dut batzuetan. Irungo sendalariak ez dauka zer kezkatu ori esateagatik, ezta ere zer poztu ni erantzuteko larí jaŕi nauenik uste izan da-du. Nik ezkeŕak demazkiot, eta beroenak eman ere, bere nereganako itz edeŕakatik.

«Alaxe da—jaŕaitu zuan—nik dantzan egin oi dut eta ořegatik beragatik ezin esan lezadake neri edozein apaizeri — esate batera — esan lezaiokeana : — «ořek dantza zer dan ez daki»—len gaztetasuna zer dan ez dakitela ia-ia esan die-ta. Ikusitakoaz da, beraz, nere mintzoa. Nik, ořetxengatik, esan nezake. Eta ez du aloterik, ez du zalantzik, nik nere egiteak aztertzen ba-ditut eta ona zer dan ta txařa zer ezagutzen baditut, gure sendalari adiskidea baño ni zuzenbideratu eŕazagoa edo uríago egongo naizela bera baño, jankindun gizona izanaŕen gaitza legokean tokian utsa

ikusten dualako. Ez dut uste txaréan artuko dituala esandakoak.

«Bera batuetan dana-dalarekin aritzeak, itxusia edo ez jakiña ba-da ere (bera neurizalea da), ez du argibide berírik ekartzen arlo onetarako. Berak érukia izan lezake baztareko neska orietzaz, edo aientzako ongi-naia, ba'dira-ta emakumezkoentzat ekandun edo birtute onenak dituztenaz. Ez dut iñolaz ere esango, sendalari maitea, zu gizonezkoekin eratsua, begikoa ez zeranik; emen gurekin daudenak ez ninduteke utzik. Baño nik diotzut soñuaren eragintasunan emakumea bear duala gozagarítzat ta nik oretan obenbidea dakustala, bederik, ta áriskoan dabilena bertan galdu oi dala».

Noski, ziñaldariak zoñtzago itzegin zezakean, ura naikoa ez ba-zan; baño izketaldia naro zijoala, ez nai bada besteak min artza.

Sendalariak osterá ere jardetsi zion :

—Nik diotzut dantzaren ondoren ez dutala beñere gogamen txañik izaten.

Ta ordurarte ixilik zegoan Karmeletek bat-batean bota zion :

—Eta irekin dagoan emakumeak obenik egiten ez duala, eskier al dakik?

Ateraldi arek mututuko zuan. Ez, bada; une artan- txe atea zabaldu zuten ta bertatik etoñi zitzaion laguntza. An sortu zan ikaragañizko otsa, ez itzegin ez entzun aal izatekoa zan. Apal bukaeran aldamenekoen iskanbilà gero ta gogoñagoa zebilela esan bearik ez dago. Areri eskeñak zer erantzun oldoztuko (pentsatuko) zuan.

Atea itxita, Josune-k (bera zan sartu beria) kafea nork nai galdetu zuan. Guzieri begiratu zien; ziñaldariaren iria naikoa izan zuan ulertzeko. Lengo aldiaz

geroz ez zan geiago ausartu sartzen.

Zorioneko atea beríro itxi zanean erantzuten leiatu zan sendalaria.

—Ea, bada, Karmele maitea, ¿nerekin dagoanak? Dagiala berak nai duana; begira beza berak nola edo zer dabilen; berarentzat izan du bere ibilera, zuzena izan edo edozein eratakoa.

—Ori duk, ik eskuak garbitu. Artean besteeri oben eragitea ere obena da.

Onetan jardunaldiak gar guztia galdu zuan. Iñork ez zuan geiago jardutzeko gogorik. Kafea luñña oparo botatzen zuan. Gizonek alkarí xigároak eskeñi ondoren kea gogotik aidean. Kea goiko argiaren ondotik goraka; ormaetan kearen eŕañua. Mai-gañean azpílak guriñez kutsatuak; matsa, patsa; uldare ta laranja-azalak, eta botílak zokoratzeko zorian. Guziak eta guzietaz mintzatu ziran eta apari ura atsegíñez bukatuzan. Oraintxe jaikitzeko zeudenean atea idikita pilarmonikaren otsa sartu zan. Guztien arpegiak alaitu ziran. Baita ere sendalariarena, len maladian gora zarataz zatozenean «asto jendea» esan zuanarena; orain, ordea, ederki apaldu ondoren, soñulariaren otsa bere baŕengo alaitasunarekin batu zitzaison. Pozik zegoan ba', ta.

—Au jende alaia, iñor madarikatu gabe ederki jolasten dakian jendea—esan zuan.

Amerikanari toki egin zioten ta guztiak banaka lekorera abiatu ziran. Soñuaz gañera gazte jendea kantari asi zan ta iñork gortu nai ez ba-zuan gogoz aldegingo zuan «Tukulu»-eneko ostattutik at.

Aŕatseko amaikak. Iluntasunean pelota-tokiko argiak bizi ta jendea beltz.

An zeuden nasteka, an zebiltzan elkar-artuak zu-

rungiloaren antzera biraka mufil-neska txak. Nik ez dut pentsatu nai zein zulo beltzean egongo zan gor-deta eriko apaiz jauna. Arte artan ajolak ez zuan us-matu nai ere. Ortzean izaŕak ixilik. Enparantzan ma-lats izugaŕia; aizea ostopil aundia biltzen; ura etorí-ala (musika), efortak jira. Ase ta ler baltsazale nasiak. ¿Nork esan aratsaldeko neska txukun' aiek...? Ara, antxen, «Sesiategi»-ko bi aizpak etoríak.

Gaueko ordu bata zan (Usauri-n amabiak). Kale baterik gora, argi baten ondoan, Antonio bakaŕik. Bere buruari ari zitzaion:

—Baño On Antonio ¿berori...?
Moskor aŕail zijoan.

VII

ARDOTXO TXURIA

Nik ez dakit ituriek zer duten. Maritxu ta Bartolo asi ziranez geroztik, makiñabat maitale maitasun-ardo txuria edatera joan izan da iturira, edo alako bat bear. Mendiko mama garbiak, nonbait, biotzeko egaña kentzen; nik dakitana beintzat maitasun likitsik ez dala ituri-ondoetan sortu.

Zeruko ura ba'dator mendi gañetara; batzuetan bideak loituak daude, baño ura garbi dijoa : ontzi bat artu ta ikusiko duzute. Ura mendi kolkoetatik amilka dijoa. Eguzkiak jotzen duala zilañezko ari ta matazak ikusten dira eta margo askotakoak ere bai. Zubio baten gañetik mamoño bat dijoa; baño ur-aria, ikutu gabe, txor-txor erortzen da goitik beera. Urak, bazter askotatik artuta, zeruaren urdiña, aize gozoa ta eguzkia berarekin dakar. Baño nik uste dutanez maitasun eragintasun guztia ta gozoena ez datorkiola ortatik : goizetan 'lili mímikoetan egoten diran intza tantetatik baizik, oriek ekartzen dute zoriona ur-laisteñaren bidez. Bai-ba', guk usaia aitzen diegu lilieri, erleek eztia atera ta intza tantak, maitasuna.

Amañak aldean Martin ikusle zegoan mutil batzuk pelotan ari zirala. Egualdia onean zetoñen orain ere. Goizeko eguzki epelak gauzak beritu egiten zituala ematen zuan, ure beriaren argiaz. Joka-tokia gerizpeak aírapatzen zuan oraindik eta lúrean sartutako aga luzeen eŕañuek lufetik irixtatuta aldameneko etxeak jo ta betik gora goiko leioak ikutzen ziran. Garai artan ots gutxi. Jokalariek eta ikusleek—ez

asko—noizpeinka itzen bat ateratzen zuten, bein-edo-bein ojua ta tarteka irí-karkara. Soñu aiek bakar-bakařik entzuten ziran eta baita erepelot aren taka-tekoak. Iñor geiago erian ez balitz bezela. Zenbaitzuk begiekin baño aboa zabalik pelota obeto ikusten zutela esan zitekean.

An zan Martin atze-aldean : pelota igo, kokotza altxa; borobilă beera, burua jetxi. ¡Bera, palaz iñoi zikusi ez duzuten bezelako pelotari yayoa! Artean... dingilindan. Arotzegi, damutegi. Beraxe zan jaien au̱regunaz geroztik biziera onik ez zeraman mutila. ¡Ta «atzo» gertatutakoa! Orduantxen iñori «ospa» esateko gai zegoan; édozein zakurari «axa»; zería izanez geroz «uxa», ta munduko katu guztieri «xapi».

Azkeneko egiñala egingo zuan. Gazteak nekea zeraman biotzean. Ofelako oldarte txařik nai ez. Ekiten ba-zion, agidanean berarentzat okeřago. Orduan lotsa ta naigabea aunditu zitezkean, orduan miña gaizkitu litzaioke; orduan, noski, gaitza gaitzen gain letorkio, miña miñen órpo, utsa utsen truke, negar negařen ostean. Ta zoritxar ofek atzeman baño lenago, garaiz gertuko zan, etsita oldozpen aiek utzik zituan... —«nakion ase ta asper, dezadan atsegin ar»— bere buruari ari zitzaison.

Gizonak zoritxařean atsegin artzen du bere buruari érukiuz. Izaerak ez du nai il, ta ziorik txikiena aitzakiz artzen du bizi dedin. Martin-ek bere atsekabeen lo artu zezakean gozoro.

Baño ez da guztia oker eta gaizki ateratzen mundu onetan. Gizon gaiztoari askotan gaiztakeriak barkatzen ba-zaizkio, onari ¿ez al zaizka zuzenduko bere uts eta narioak? Ta gauzak zer diran ikus dezagun, ara non azaldu zan Mirele bere etxeiko eskaratzan ur-ontzi batekin eskuan. Ituria pelota-tokiaren atzean,

Martin-en atzean... Iturírako bide zuzena, bada, Martin zegoan toki beretik. Mutila txospertu zan. Azken-aldiz itzegitea, bear ba-zan, zirt-zart erabaki zuan ta orain neska aurétki zetorkiola bere jabetesuna galdua zegoan.

Neska polita zan Mirele. Espartzin txuriekin astiro zetoën. Beti apain ibiltzen zan neska, ileak atzera motots potxolo batekin. Arpegi mea garbiro ikusten zitzaison. Txotil zebilen Mirele. Bertago ta mutila liñaratuago. Bear-bearekoa zan abagune egoki artan Mirele-ganatzea, nai ta nai-ez itzegin bearko zion. Ezin zitekean orela egon. Joan egingo zan. ¿Ta nola artuko zuan berak? ¿Itzegiten eratsua izango ote zan? ¿Bi gauza gerta lezaizkiokean: edo ongi artua ala gaizki eraman. Begitarte ona egingo ba-zion ¿ez al zan bera astorik kankaluena bildur izateagatik? Árera txaria egitekotan... bein eta «akabo». —«Gizonak ez du koldartu bear; bear da bear, bear danean gar apur bat izan»— berekikoz ari zan, baño... txepeldu zan eta... neska bere atzetik igaro.

Neska igaro zan; baño alderatzekoan begiak lurretik altxa ta Martin-enak topatu zituan. Martin-en begiak bere aboa baño ausartuagoak izan ziran. Bi begietan bañengo naitasun guztia jaí zuan. Martin-ek samurtasunez begiratu ta begiratuan damuaren oñaze bizia jaí zion.

Ura oparo zetoën kristalezko pitxariean. Mirele oraindik makurtuta zegoan. Ura gañezka zetoën baztarák zipristintzen. Altxa baño len Mirele-k Martin-en erañua atzean ikusi zuan. Pitxaria eskuan artu ta alkařen auréan arkitu ziranean, Martin-ek leialki esan zion:

—Barkapen eske natorkizu... Ene burua aztertu dut eta atzoko txarki egiña ikusi dut... Zu, egiazki, ez

zera nere zakarkerien gaři... Atzoztik ezin burutik kendu nere gaizki egiňa... Egiňa egin, ez geiago... Ez dut nai zurekin asaře egon, Mirele...

Ta Mirele esatean naitasunez esan zion. Zein aldartea, indar aundikoa izaten da norbaiteri bere ize-nez deitza.

Baño Mirele-k uste jardun luzeegia zeramala bera bakarik aritzeko. Neskak ere itzegin nai zuan; ez zezala uste (egiazko ustea) itzakin goxatuta zeukala. Ta asařea aipatu ondoren jaři zion :

—Ez asaře, ez adiskide... ezerez.

Jainkoak daki zer lan izan zuan ori esateko. Martin-ek jařaitu zuan :

—Barkatu egidazu, bada, ta eskua luzatu zion.

Mirele-ren arpegi kutuna biguntzen asiagatik ez zion eskua artu nai.

—Barkatu, barkatua zaude nai ba-duzu; baño es-kurik ez dizut emango.

—Ortaezker, ez barkatu ta emaidazu eskua.

—¿Ori al zenuan damua?

Ta Martin-ek oraindik eskua luze zeukala :

—Ba'dakit eskua emanda barkatzen nazula ere.

Martin-en eskua ain erakar aundikoa zala-ta, pitxařa eskubitik ezkefera aldatu, eskua soñekoan igurtzi ta, azkenez, berea eman zion Mirele-k Martin-i.

Martin-en esku beroak Mirele-ren bustia artu zuan. Onek luřera begiratu ta zer esan geiago ez zutela etxerako bidea artu zuan ur garbia pitxařean...

Aga mutuřetako bandera txikiak aizeak zera-bilzkian...

Martin bere tokira joan zan. Jaři zan atzean pelotan ari ziraneko artan. Baño gaztea jnola egongo zan! bein pelotak, atzera etorita, bera bakarik zegoala, kokotz azpian jo zuan.

Ez zuten mutilek par txaña egin. Ez berak ere.
Ura baño okeágorik ez zezaiola gerta.

Izugariak izaten dira asaréutako mutil-neskaen
adiskidetzeak.

VIII

ESKARATZ-A TEAN

Egun artako arats arekin bukatzen ziran Usauriko jaiak. Bigaén egunak ez zuan zer ikusi berírik. Eguerdi arteko pelotaka ezik, gañerako guztila berdintsu zijoakean.

Eguerdi artean pelota-partidua izan zan, bada, ta ez txarénetakoa : bi naparek bi gipuzkoáren aurézka. Martin-ek bost pesetakoa galdu zuan napaén aldez. ¡Ajola zion!

Bazkalondoz lengo irímaíua orain ere, lengo ibilte nastua. Eguzkia, berbera. Edozein gurdik—taíanta, zaldizkoa ba-zan—autsa arotu ta eguzkitan zuri-zuri eginda «Tukulu» ta «Gaztiene»-ko maietaraño zabaltzen zan. Geroxeago, enparantzan, lañoa gañean egon oi dan bezela, an ere autsa gogotik ba'zegoan. Batzuk ara onera, besteak zuri neri, ufenak egon; ibiltzeko bide zuzenik ez, batean alboan jo, bestean sudurak burua topatu; eritárák eta erbestekoak sare bat egiñik zeuden. Ikuste oféri erantzí dezaiogun entzutea : arako txintxari saltzalea, beti bateko baríleroa, aztu eziñeko pilarmonika, gogo on eta gogo txáreko iríkarkarak, ajolagabeen ojuak eta ardura gutxiko pelota-ikusleen atzerakakoak.

Baño gatozen gure arira. Oraintxe Martin-en arloa kokotzarátu zaigu ta naiz gero gauzak txandaka esan, esagun zer gerfatu zitzaison aratsaldean Mirele-ren buruz.

Egia esateko Martin ez zegoan oren lañi bigañen taloa jateko. Lenbizikoa ondo txegosi baño lenago bigañenak gaitz egingo ote liokén. Goizekoa xamuña ta goxoa izan zitzaison. Oraindik ezpañak ondo igurtzi gabeak zeuzkan. Áratsaldea nekezago etorri zedin nai izango zukean, ez oren aguro—aboko zapai asetua luzaro iraun zezaison. Orez gañera neskarengana beríro joateko zer nolako izketa erabili oldoztu egin bear ta naiz ituri-ondoan adiskidetu, beríro kemenak saiatu bearko zituan alderatuko ba-zitzaison. Neskaen arlo oriek ez omen dira bat-batean, banoan, irabazi litezkeanak.

Ori bada, ta uñengo topoa gaizki ateratzen balitzaison, taloaren atzetik ospiña. Lendik ere ikasia zegoan, gauza bat iruditu ta bestea izaki; eldua uste, gazia jan. Emagun ez bero, ez otz, axaletik artzen zuala; goizeko ona aztu ta áratsaldeko utsa bururatu beara izango zuan.

Gauzak berak nai bezela gertatuta ere gaskoz geituko al zioten bere zoriona? Berak nai bezela gertatuz geroz... bai, ta suduraren puntari azka ari zitzaison. Berak nai guztia (neskaren iñia zekusan) iritxita ¡noski!

Ta gañera beste gauza bat gerta lezaiokean. Bear ez danean agertzea bezin okeña da bear danean ez azaltzea. Ba'zitekean neskak áratsaldea etortzea nai, —«¡neskak ez al dute maitatu bear!»— bere buruari erietan ematen zion. Ba'zitekean berarekin Mirele atsegin egotea, baldin bere txoroan goizeko alkarékin egonari itxura ematen ez ba-zekian.

Ta Mirele-ren berarenganako ustezko atsegiiñarekin, ba'zebilén pozik enparantza-baúan adiskiderik ikusi nai ezik : bateri iges, besteari itzul. An ikusi zituan Karmele ta Josune.

Josune gaxoa! Ainbeste lanez ekarriazi zuan sendalaria gau artan bertan joan zitzzion, dantzan gogotik eginda. Sendatu beaŕean gaizkitu. ¡Eta nola aldegin! Karmelete-ri bean zegoala eskuá eman agur egiterako eta doi-doi oartu ba-zuan goiko leiotik kokotza ikusi nai zion neska eder ta gaxoa. Ordurarte ez zan konturatu Josune egin zuanaz. Lotsak eta damuak ez zioten lo egiten utzi. Ala ere maite zuan; baldin auŕerantzean adiskidetuko balira igarotakoaz aguro aztuko zan.

An ikusi zituan ere Martin-ek, Mirele ta Bitorene. Bereganatuko ote zan, joango ez ote zitzzion, zalantza goría zerabilkian. Bein agur eginda ia abiatu zan. Artean bikin baño, bera bakaŕarekin obeto. Zentzuari eman zion batean bere burua lotsagarí ikusi zuan, bakaŕik ofenbeste ezagunen artean nora jo ez zekiala.

Iluna ba'zetoén. Andik urbil musika ixilduta etxeratuko ziran guztiak. Obe zuan Mirele etxerakoan aŕapatzea, bai. Ta orduztik aterabidean jarí zan iñork eragotziko ez lioken tokian.

Musika bukatu zanean Martin-en biotzean asi zan ostera. ¡Aren takatekoak jendea zabaltzen asi zanean! Erne mutiŕa; neska eskubitik, bera ezkeŕetik; gurai-zeak erdiratzen diran bezelatsu, berak ere Mirele topatuko zuan; artean ez azkaŕegi, ez beranduegi, ibili bearko zuan era egokiz azalduko ba-zan.

Aŕitu zan. Bestetan Bitorene-k etxe ondoraño laguntzen zion ta orduan enparantzan laga.

Biak zijoazen bakoitza bere aldetik. Mutilak begiak zoŕotz, oňak neuríz. Zertxobait ibili ziran. Ta «Gaztien»-ko ondotik igarota Mirele bizi zaneko kale bakartsuan sartu bear zutenean, zilargiňa etorí zitzzion Martin-i.

—Kaxo Martin. I, atoria. Nik ba'zekiat i zer abilen:

Aŕapatzen ba-zaitut
aŕapatzen ba-zaitut
berjan, bertan
jango zaitut

abestuta «ji, ji, ji, ji» asi zan.

—Motel, utzi nazak pakean.

—Txiki-erdi bana edan bear diagu.

—Itxoegintzak, bereala ba'netorek.

—Ez, oraintxe edan bear diagu.

—Ez diat nai—esanda Martin-ek txamaŕatik tira zuan, zilarginak laga zezaion, ta indaŕaren indaŕez zilargin moskoŕak bira osoa egin zuan zankoen gañean luŕera erori gabe.

Txorabioan ala zion : —«¡Oí, ama! Ji, ji, ji...»— Lerdea abotik beera, sua begietan, bati begira beste-ari bultza, mutuŕez auŕera sartu zan Gaztienean.

Martin-ek oñiak arindu zituan, laría kolkoan, arnasa aboan, ta eskaratz-atean zanko luzaka ozta-ozta aŕapatu zuan.

—Agur, Mirele, ¿laisteŕean zera?— ausartu zan esaten.

—Betiko eran —yardetsi zion neskak geratu bitartean—. Zu, ba'liteke. Ni orain apaitara. ¿Zer na zenuke bada?

Artean zertara zetoŕen igafita zegoan naiz atzera begiraturik egin ez, ez-eta ibilialdia azkartu ez lasaitu ere.

—Baldin garai onez ez ba-nentorkizu... Ez nuke nai gogo txaŕez artu nenkizun. Ain pozik nengoke zurekin —zion Martin-ek.

—Eskeŕak demazkitzut nerekin pozik baldin ba-zaude, naiz aŕitu xamar egon zure niganako on-naiagatik. Baño ¿ez al diozu igartzen, nik naita ere,

gaizki giñakela ementxe illuntzean gu biok bakañik?
¿Zer esango luteke emen ikusiko baginduzkete?

Begieri begiratuta iri-antzean erantzun zion Martin-ek :

—Agidanean, apari-eske natorkizula.

Ta iria ezin aterarik zegoanak Mirele-ri ortz zuriak ikustean pará gogotik egin zuten biek ere.

—¿Nola dijoazkitzu aurfengo jaiak, Mirele? —ekin zion mutilak.

Neska ateari bizkará jañita zegoan.

—Ondo, ederki.

Mutila bertago.

—Artean iñoz baño aldenduago zakust.

Ixilune baten ondoren galdetu zion neskak :

—¿Eta zuri nola dijoazkitzu?

Martin-ek bat-batean :

—Ezin obeto.

Neskak bere aldiko :

—Ala ere beti bakartsu zabiltz.

Ezin ukatu bada alkarr ondo artu zutela. Neska pixka bat lotsatu ez ote zan.

Martin ba'zebiñen zerbait geiago esan naiean. Bildur zan eskaratzan gora asiko ote zan. Zerbait esan bear eta.

—Utziko al ninduzuke zu ikusten zaitutenean zureganatzea? —galdeut zion.

—Nereganatu —asi zan Mirele— bein edo bein...

Gaur beintzat ez didazu iñolazko baimenik eskatu.

—Ez... —burua makurtu zuan.

—¿Oren bear aundikoa al daukazu nerekinegotea?

Beste edozeñengana bezela zatorzke neregana ere.

Mirele-k neskaen izketa berbera zerabilkian. Ez zion ezetzik ematen, edo obeto, baimena bai. Alegia bera bat, besteak bezela. Ta naiz mutilaren asmoak

jakin, ez jakiña egin, ajola aundirik erakutsi ez ta zer erantzongo ote zuan zai.

Martin, noski, berarenganako gogo ona aitortzera joana zan. Abagunea ezin obea etoñi. Esango zion. Itzak, ordea, ez nai bezela aboratu. Guztia esateko aundiegia, gutxiegi esan nai ez. Orduantzen saiatu beaña etoñi zitzaison.

—Ara, Mirele —asi zitzaison—; zuk ba'dakizu ibaiek zein indaña dakarten. Ezerk ez ditu aien bideetatik aldentzen. Arkaitz bat jaña ta inguruetatik joango da ura; asko jaña, gañetik igaro, ezerk ez dio geraziko ibaieri. Ba'dijoia ibaia ta osin bat topatzen du. Ba'dago pixka batean ta bereala beste aldetik irtetzen da ta len baño indar geiago darama. Urena aintzira zabala jartzen zaio bidean. Luzerago egon ta baita andik itzul egin ere. Ta'oartu zaiozu, itxasoa urbilago ta aundiago ta indardunago dijoa, azi egiten da. Aliketa itxasora irixtearaño ez du atsedenik artuko. An bere magal goxoan bat egiten dute atsegíñezko pakean.

Geldialdia egin zuan. Biak alkañi begira zeuden. Eta jañaitu zuan :

—Ona, ni ibaia naiz. Zuk diozun beste neskak osiñak eta aintzirak. Eta zuk... ñnai al zenuke itxasoa izan?

Martin-ek ezin zezakean jarduna garbiago erabili. Orain, ordea, laña-aldia Mirele-ri zetorkion. Baño onek bereala erabaki.

—Ez dut ezere ulertu —erantzun zion.

Martin-eri para egiteko gogoa etoñi zitzaison. Ta jañaitu zuan :

—Zuk izañetan zein maite duzu geiena, edo zein zaizu begikoena? Zurien, argiena, edeñena ñez da? Bada neretzat izañik politena zu zera.

—Ori guztia —erantzun zion ulertzen ez zuanak— baldin udarako legortearrekin ibaiaren etoria gutxitu ta zingiran gelditzen ez ba-dan, baldin zure ikusmen txarak ipurtargiaren tokian Artizara erakusten ez badizun.

Martin azkeneraño zijoan bada.

—Udaran gaude ta nik diotzut ibaiak ura gañezka daramala eta bidean ez duala oraindik osiñik ikutu itsaso auréan dagoalarik. Nere ikusmen argalak ez nau laketzen ipurtargirik ikusten ta eri au dala-ta izar ederak itxutzen nau ta itxuan egin nezakizun utsak... barkatu.

Esan bezait irakurleak nik nere liburua polita egitearen ezere asmatzera beartuta ote nengoan, Martin-en jarduna oraztu ta edertu ditekenik.

Ementxen bukatu zan alkar-izketa, bada Mirelen aizpatxoa, Margarite, orduantxen etori zan, apartara ura ere. Irurak alkañekin, abegi ona egin zion Martin-ek neska koskoñari. Gorako asi zirala, aratsean aterako ote zan galdetu zion Martin-ek Mireleri. Ez zuala gogorik esan zion. —«Ezta nik ere»— Martin-ek. Ta «agur» esanda bi aizpak besotik elduta bañen-aldera jañi ziranean, Mirele eskua atzera luztuta, gogoz estutu zion Martin-ek, ta onek ere aparrirako bidea artu zuan.

Taloaren gañean mami zuria.

Irakurleak, emakumezkoa ba-da, ba'liteke gure Martin ori begikoa izatea; baño, gizonezkoa ez ba-da, ez du beñiere jakingo nolako biotz betetasuna zeramakean Martin-ek etxera-bidean.

Ora bi gazte adiskide-maiteak asi ziranez geroztik, ez dantzan egin, ez iluntzean atera, nai izan ez zutenak.

¿Zer ote da maitasuna?

IX

MENDIAK EZ, GIZONAK BAI

—Mendiak mendia ez du bilatzen; gizonak gizona, bai. Esan akiotek Usauri-koeri bigar aŕatseko amarétan beko bide-kurutzean egongo gaitukala ta gizonak baldin ba-dira etorí bitez.

¡Nork esan Donibane-aŕatsaldean irundaŕek eta usauritarérek izandako utsagatik oŕenbesterañoko griñia sortzea!

Auŕeko itz oriek aboz-abo zerabilzkiten Usauri-n ta oraintxe qŕiko gazteak ez zeuden baretu-erexak. Guztiak asaldatuta alkaŕekin topo egitean, edo kale-kantoietañ pilaka, ala ardotegi zuloetan lagun-artean, beste jardunik ez zuten; noski, ez zebiltzan atzera egiteko asmotan. Ta oŕetxegatik, gazteen artetik kampora ez zuten nai iñork jakitea, emakumeak jakiteko-tan mugazaiekin jakingo zuten ere ta orduan ez joan ez etorí, ez jo ez aŕikarik; ez, ordea, usauritarérek ori nai. Mugazaiak tarte jaŕita Usauri-koek naita sartu zirala esango zuten ta aitzaki oŕekin arpegia eman nai ez zutela esan. ¿Berak koldaréak, berak oloak?

Egun artan, aŕatsaldeko seiretan, mugazaiekin ezere jakin ez zezaten, auek kartetan aritzen ziraneko toki berean bilduta zeuden, «Tukulu»-eneko baztar itxi batean. Mai luze baten inguruan zeuden jaŕiak guztiak. Zer artua Josune-k ekaŕi zien. Zilargiñak paŕa esku tu zuan kantari. Atea itxi zanean Juancho mintzatu zan lenengoz.

—Emen boŕokatu nai ez duanik baldin ba-da atera bedi—asi zan.

—Bai, bai—erantzun zuten guztiak.

—Guk egin bear duguna—jaíaitu zuan—palta diranak gurekin ekaři. Emen amabi lagun gaude, ogei osatu gindezke. Ta oraintxe bertan zein bideak ibili bear ditugun ta nola antolatu ementxe erabaki bear dugu.

Krexentxio-ren itza entzun zan uřena. Zilargiňak zionez onen etxera deitzeko aldabarik ez ta atearekin orma joka aritu bear omen zan.

—Zer derizkiotzute—bota zuan—batzuren-batzuk, erdiak bezela, bide kurutzeraño joan, besteak tunel-gaňean egon ta aiek igeska bezela abiatu tunel-alde-raño, irundařek segi dezaieten; eta gero, aři asko dagoan tokia bai-dan, danak alkařekin aieri ařika astea?

Krexentxio-ren iritzia ez zan bat-batean onartu edo ezetsi zitekeana. Ixilik zeuden, oldozketan jaři ziran, batzuren-batzuek ontzat artu ere bai, baño ez; joan eta bereala atzera kořika astea, ez. ¿Eta jaíaitzen ez ba-zieten, eri-bidea artu nai ez-ta geratzen ba-ziran, zer esango zuten?

—I, Krexentxio—zilargiňak bere aldikoz—to ori baño obea. Nik beko eletrizidade fabrikatik, edo zuek tximistargi-ola deitzen diozuten ořetik, alanbrea jaři, burniaria jaři, ta bide-zabalari aldez beste burniariz egin; gu atzera asiko gaituk, gaňetik igaro, non dagoan dakigula; ta aiek ez jakin, ez ikusi, ez dutela, alanbrea jota «grano»-rik ez duk «sano» geldituko;—ta «ji, ji, ji, ji» erazo zion—guztiak bertan «seco» geldituko dituk—pařez, bizkařa makurtuta, bukatu zuan.

Batzuek ezik, ez zuten pařik egin; labea opiletarako ez. Baño an norbaitek irundařen artean «Katamotza» zeritzateneko bat etori bear zuala aipatu zuanean ikara bezelá sortu zan lekune artan. ¡¡Katamotza!! Gaiztoa, gaiztorik ba-zan; «eremienta» edeřa. Bein,

berogeitamar beiekin, mugazairik ikusi gabe, Zara-goza-raño iritxi baietz, apostu audi bat egin nai izan zuana. Pafarien kaltez, kontrabandistaen kaltez, urutizkiña jaí nai izan zutenean, arátsalde batean, berak bakařik, iru tantai bota ta bi kilometroko aria ostu zuana. «Gaua gauekoenzat, eguna egunekoentzat, Lizarpe-ko zekoa neretzat»—esanda, ukuļutik lapurtu ta nor izan jakin ez zutena.

¿Baño zergatik espetxeratu zuten bein? Orduan Manuel-ek askok ez zekiten esan zuan «Tukulu»-eneko zoko artan. Arobian aritzen zan Katamotza. Askotan, danba bat botatzerakoan, zakur bat lergaia-ren ondoan ibiltzen zan ezin uxaturik. Ta zakur ura ariskotik kentzeařen zakuřaren isatsari dinamita paska bat lotzea gogoratu zitzaison, ta lotu ezik biurtuari su eman zion. Katamotzak zakuřa iltzea besterik ez zuan gogoan. Baño danak dakigu zakur bati atzean zerbait erazten ba-diogu bereala laisterka dala egiňaletan, batez ere erantzitakoak txinpartak botatzen baditu. Zakur gizajoa asi zan bere aldiko ta nora jo bear ta emakume batzuk uretan jantziak garbitzen ari ziran ikuz-etxeen sartu. Sartu ta batean lergaia lertu; zakuřa ormaren kontra il, emakume batzuek kordea galdu, leiařak autsi ta ez zan oker aundiagorik izan.

Oixe zan irundafekin etoři bear zuan Katamotza. Noski, aren izengoitia entzunda (zerbaitengatik jaíko zioten alako izena) zer kezkatu ba'zuten. ¿Zer egitekoa ote zuan Katamotzak usauritařekin? ¿Nork deitu ote zion? Uřengo eguneko boroka, beraz, ez zan makala izango. Ondo gertu zitezkean ta bear bezela ari. Baño Katamotzaren etořibeafak, batez ere, asaldaturik zeuzkan bilera artako gazteak. Kezka ori ezin aienaturik banaka-banaka guztiak begira asi zitzaioten Paulino-ri. Paulino, maira begira, ixilik. Ez zuan itzik

esan; baño arpegian igaři zezaiokean. Orduan arnasa lasai artu zuten guziek.

—Bildurri ařaioak—jaři zan Antonio—. Emen bildura galanki. ¿Zer Katamotz eta zer galtzamotz?

Ori esatez bukatu ta ondorengo ixilunean afea idiki zan. Josune txiňalka sartu zan ta afea bere atzetik itxi zuanean, ba'zala dendan gazte bat, etoři-beria, kanpotaria, aiek zesatena entzun naiean zebilena, esan zien.

—Irundařen bat duk—asmatu zuan Juanxo-k. Alkaři begira jaři ziran. Juanxo-k afea artu.

—Iges egin du!—otsegin zuan.

Guztiak aulkietatik dendar atera ziran; geienak kalera irten, batzuk eskubira, besteak ezkerera, irundařaren atzetik.

Zilargiňa, ala ere, lasai gelditu zan bařunbean.

—Josune, ekatzan beste kopatxo bat gaxo ořek—antzia atera zuan.—Adi zan, belearena egin duan multil polit ořek ¿pagatu al din?

X

I L U N A B A R E A N

Usauri-ko zortziak, bestetako bederatzia. Garai onetarako ogei lagun zeuden bildurik Eritegiko auŕean; doi-doi Juancho-k asmatu zituan ogei gazteak. Eritegia zubiz arunztiak zegoan, eŕiko saŕeran, ta auŕeko zugazpetan gorderik zeuden esandako mutil bizkoŕak.

Eguzkia Usauri-tik ezkulatua zan—mendiz inguratutako eŕia bai-da—; baño egal batetik igo ta arako tontor artatik ikusi zezaiokean musu gofia baldin orduantxe ifxasoan sartua ez ba-zan.

Guzia erabakita zegoan. Manuel be-aldetik joango zan. Bera Bordategi-koa zan ta ango bideak ederki zekizkiana. Bai-ba', Eritegiko andreak esan zuanez auŕegunean «Tukulu»-enetik iges egindako irundaŕak ormazar batetik salto egin zuan ibaira, belaun koskoŕetaraño urean sarturik, zubi azpira abiatu ta an zai zegokion beste irundar batekin biek alde egin zuten, beko bidexkak artu ta ezeren aŕastorik utzi gabe.

Benardo, Zaldo-tik baŕena joango zan goi-aldetik ta gañerako guztiak bide zabalatik. Gudaketa, beraz, tajuz antolatua zeukaten. Oŕez gañera, tarteka-tarteka, bekoak «pit» txistu egingo zuan, goikoak «pit, pit», bi; alegia alako tokian zeudela; eta baldin etsaia ikus-ten ba-zuten, bekoak txistu luzea ta goikoak bi txistu luze. Maltzurkeririk ez balio usauritarekin.

Benardo-k gorako bidea artu zuan. Manuel-ek menditik beera burua bota zuan koŕika. Andik pixka batera, aiek goi-beak aŕapatutzea antzemanda, bide zabalatik asi zan faldea.

Bide kurutzeraño ordu erdiko tartea ba'zan ta la-

saiki joanda ére garaiz irixteko aukera. Taldeak batzuetan amor ematen zuan, bestetan estutu, batez ere guztion artean zerbait erabaki bear ba-zuten; ariak tunelean artuko zituzten, bitartean iñork ikusita itxura gaiztorik eman ez zezaien. Batzuetan jarduna oparo, bestetan uriki.

Alako batean ikaratu ziran batzuk, «pit» txistua beráiratu zitzaiotenean. Manuel zan. Andik pixka batera bi «pit» urutikakoak. Ez zijoazen gaizki zaituak Baño Benardo atzean zetoñen.

—¡Eup!—otsegin zuan batek—. Geldi pixka batean, ori atzean dijoa.

—Onezkero — erantzun zion beste batek — tunela bertan zeukaguk eta ari ontxoena bildu bitartean alderatuko zaiguk, ariak ere bear dizkiagu.

Tunelean ariak bildu ta bildu, oraintxe astoaren itxuran («anima apartatuta») bi sakel audi ezker-eskubi ariz beteta, Benardo-ren txistua auñe-aldetik zetoñen. Zamukak naiko ez ta batzuek eskuetan ere ariak zeramazkiten.

Une artan zeru-goia argi oraindik ta bea ilun. Andik auñera alik-eta ixilena joan bear omen zuten. Benolakoan zilargiña atzetik zijoala asi zan karáxika:— «Infrentero, dame un mano de papel...» —ta jdzasti ortzetan jota «por el aokozulo» bukatu zuan aldamenekoak eman zion amoroarekin. Ta eskeírak eskuan aririk ez zuala. Ea, kalte egiteko asmotan etorri ote zan, esan zioten, ba'ljoakela érrira oretarako itxaldanagorik! Ta zilargiñak, eskua aboan, ala ere par egiten zuan bere mutur okeírarekin. Ez omen zioten entzun ta entzunda ere... Ixildu ziranean bat-batek zearka ezetsi begiratuarrek «babo añaioa» bota zion.

Baño «babo añaioa» esatea ez zitzaison eragozpen andik pixka batera bideari bira emanda irundaírak

auŕean ikustean, Antonio-k lenbizikoz aŕi galant bat aien erdira botatzeko, naiz-eta zugazpetan lenbizi itzera etortzea erabaki.

Bat-batean amalau aŕikote aidean, irundaŕenak, kaskabaŕa bezelako otsa ateratzen zutela. Danak bidean jo zuten. Juantxo-k «¡bota!» oju-egin ta beste emezortzi aŕien erantzuna.

Gudaketa asia zan Usauritar batek min artu zuan zankoan aŕi batek kosk eginda; baño luŕa iota gero. Bi aŕikalari-taldeak sakabanatu ziran bide ertzetara. Zilargiňa bide-erdian jaŕita arpegia ematen iñork baño bildur gutxiagorekin. —«Ots aŕi ori, erlojero»— ta kaska luŕean jo ta izugaŕizko ikotika bide-auréra. Zer esanik ez dago orain bakoitzá artu ta bota eten gabe ari zirala. Zilargiňaren inguruau eŕuz erortzen ziran aŕi puska audiak. Ordurarte iñork ez zukean esango gure paŕontzia ain yayoa zanik bere burua gordetzen. Aŕi baten atzetik bestea ta bestea, luŕean jo ta zaldi zoratuen gisan uŕutiraño joaten ziran. Zaurituak ba’ziran bi aldeetatik. Irundaŕek naiz lagun gutxiago izan su ta gaŕez ekiten zioten. Bai usauritarrek ere. Ta, bai gero ta ilunago zegoalako ala amoŕoa amoŕatuago zetorkielako, ausartuenak ertzetatik makur-makur eginda alderatu ziran. Ilunpean ozta-ozta ikusten aŕiak botatzeko aukeran ta opila nondik zetoŕen usmatzeko ere doi-doi.

Baño une onetantxe irundar bat aureregi zijoala ustekabean sasietatik atera zitzaion gizon bat. ¡Manuel! Bizkar gańera salto eginda makurtuta zetoŕenak «mando lertu» egin zuan ta biek alkaŕekin luŕa jo zuten, irundaŕa azpian. Au ikusita beste irundar bat etori zan Manuel-engana bere lagunaren aldez. Uŕena usauritar bat Manuel-i laguntzeaŕen ta «Jesus» esaterako an orduko emen ziran guztiak. «Jesus» esatekoia

ba'zan. Gure bizi guztian ez dugu beñere ikusi uralako boñoka bizírik. Jo an, jo emen, jo «suelto», egiñalean ari ziran bi aldeetako gazte bikañak talde bakára egiñik. Orenbeste arikada botata gero ezin sinistu uralako beso-jokoa erabili zitekeanik. Gaitz oren ondorenak ez zeuden uñun; batzuk lu'rean zetzaten, beste batzuk oñaze-ojuka.

Baño une batean guztiak zearo gelditu ziran : Katamotza ta Paulino aurez-auré arkitu ziranean.

—¡Toki guri! —ojuztatu zuan Paulino-k— ¡biok bakarik!

—¡Ik eta nik! —erantzun zion Katamotzak begiak sutan.

Ta orduan asi zan bien arteko boñoka izugaría. Katamotza ta Paulino erdiratu ziran, besteak beren aldekoaren atzetik.

Ta burua makurtuta ta besoak auré-aldera, uñengo atalean esango dugun bezela ekin zioten alkarí.

XI

KATAMOTZA TA PAULINO

Katamotza giar utsa zan. Ez aundia, Paulino baño motxagoa; ez oso zabala, Paulino baño estuagoa; ez beso iztar lodi, Paulino geiago. Baño gizen tantorik duan aragirik ez. Bere besoko edo iztaretako giáretan, egíñala egin, ez zenioke beatz-mutur pitíñik sartuko iñolaz ere. Iltzatutako oñetakoekin salto egin zenezake lasaiki bere sabel larubizian, bera lasiago. Ba'zuan ikotikak egiteko ikaragarízko almena, eta, batez ere, atzapar gaiztoak eta iñori min egiteko grin gaiztoagoa oraindik.

Paulino bareagoa zan, on-utsa mutila. Nekez asaéetzen zana, baño asaéetutakoan... Besoetan indaíra Izugari, uste baño ariñago ta boókarako gaitasun gutxik alakoa.

Orain jokatu bear zuten boóka ezin bildurgaria-goa. Gañera, Paulino, besteari dixidatu zionez geroz, asaée bizian zegoan ta bein asaéetuta jura zan boókalaria!

Katamotza, aldendu xamaña, batera ta bestera zebilén, etsaiaren gañera erortzeko noiz une egokiena izango zan. Paulino geldi bere tokian ta Katamotza-ren araberan eskubira-ezkefera auréa erakusten. Al-dizka sartu-itxurak, igidura azkañak; teink Paulino, begiak zuzen. Katamotzak nekatu, aspertu nai zuan Paulino, bere érotik atera. Pizti batzuek ala egin oi dute, berek atzeman duten aberea indurika nekarazi, aspertuarazi, ta aberea, edo bear ez danean asi, edo alde egiterakoan galdu. Onelaxe zebilkion Katamotza Paulino-ri. Beste guztiak ikaratuta zeuden ixilik zer-

tara efori ziran ere gogoratu gabe; ezta itz bat beren aldekoa zirikatzeko.

Katamotza ez zan nekatzen bestea estutu naiean. Iria ikusi zitzaion ezpañetan.—«Il bear aut», esan zion Paulino-ri ondorenean. Ta «dzast» bat-batean aidean joan zitzaion. Aldi berean Paulino-k bizkaŕa makurtu ta an joan zan Katamotza ankaz gora. Paulino-k bira erdia egin orduko zutik zegoan bestea.

Oraintxe boŕoka mugitzen asi zan. Paulino-ri odola berotu zitzaion. Bigaŕen jazaŕa ez zegoan uŕuti. Biak alkarí begira jarita, Katamotzak salto egin bear zuala zirudienean, Paulino auŕeratu zitzaion ta Irún-goak zintzuŕatik eldu nai izan zionean, usauritarak besoak luzatuta bestearen bi beso-tartean bizkaŕetik eldu zion. Bai Katamotzak ere. Ta tankera onetan biek bultza egiten zuten, iztaŕak atzera luzatuta, idi-apostuetan idiekin ikusten bezela. Orduan bien giaŕek soka bat teink jaŕita moztutakoan bi mutuŕak azkatu bezela, alatsu autsi bear zutela esan zitekean. Paulino-k geiago bultzatzen zuan, aztunagoa zan ta indar aundiagokoa. Katamotzak, oregatik, sendo iraun naiz atzeraka egin. Paulino-k luŕeratu nai zuan Katamotza. Ez zan ain eŕeza, ordea. Baño bultza ta bultza iraupena aitzen ari zitzaion Katamotza-ri. Ezin bada luzaroan aŕen indar aundia jasan. Bein buruarekin Paulino arpegian jo nai izan zuan. Paulino-ren besoak enboŕak baño zuzenago ta gogoŕago zeuden.

Ta ara zein boŕokalari yayoa zan Katamotza. Paulino-k oraintxe menderatuko zuala uste-ta indar guziarekin ekiten zionean, bere burua luŕera bota besteak, —lenbizi ipurdiz erori ta gero burua atzekaldera bota — zankoak jaso ta Paulino indar guziarekin murgil egitera bezela zetórenean, azpikoak goikoari bi oñak iztaŕ-ondoetan ezaŕi ta bultzatuaz atzekaldera

bota. Paulino-k bira osoa egin zuan. Biak une batean bizkaiez-bizkar luŕean exerita gelditu ziran ta bat-batean arpegiz-arpegi beriz ere. Zilipurdika ura «amen» esan orduko egin zuten.

—«Il bear aut, il bear aut», zion oraindik Katamotzak geldik ezin egonik. Iria ezpañetan beriz ere. Len Paulino-ri odola berotu zitzaiola esan ba-dagu orain irakiten zegokion zain baŕenetan. Aŕapatzen ba-zuan garbituko zuan. Ordea, irundaŕa ez zan aŕapatu-eŕexa età jkontu gero! Boŕoka ura ezin zitekean askoz geiago luzatu. Al zan laisteŕen almen osoa jaŕita baten-batek etsaia azpiratu ta gaizki ibili bearko zuan, oso gaizki. Alkari oratzeko gogo bizia zerabilkiten.

Oraintxe ba'dirudi Katamotzak luŕetik eten egin bear duala. Paulino zai dagokio, bestearen bila joan nai duala ematen du. Ta orduan Katamotzak bere-biziko saltoa egiten du usauritaŕaren gaňera. Baño Paulino-k ikaragaŕizko aŕera egin. Aidean zetorela jotzen du ukabílez buruan ta aŕanoa tiroz ilda eroriko litzaken bezela, izugarizko plastakoa egin zuan luŕean.

Usauri-koak oju ta kaŕaxika atera ziran irundaŕen atzetik. Auek itzul egiňaletan beren automobil ta bizi-kletaekin Irun-aldera. Paulino-k deitu zien beretako-eri, alegia irundaŕek etoŕi nai ba-zuten Katamotza il-edo-bizi jasotzera, etoŕi zitezela. Ta guztiak kantari ta ikotika Paulino erdian zutela eŕiko bideá artu zuten. Min-artuak ezta batere gogoratzen beren miňak. Gaua zan. An ziran Manuel, Benardo, zilargiňa, Aŕano-poleta, Krexentxio, Juanxo eta besteak. Gogoz zijo-azken gertatutakoaz jardunean. Bein Manuel-i zorionak ematen zizkioten bere egitekoengatik; uŕena zilargiňaz gogoratuta erdian artu ta bizkaŕa ubeldu arte zunbate-koka gogoz asten zitzaioten. Aŕiak ugari erori ziran bidean. Aldizka igora Paulino! ekiten zioten. Ta

zilargiña igorat esatera zijoan batean, beera erori
zan muturéz auéra.

Antonio gajoa anka-azpian artu. Ia ostiko bat eman zion. Ortzak odoletan, zutik egoteko gauza ez zala bide bazterean etzanda zegoan. Irakurgai onen egileak gauzak zearo jakin zituan eta ba'daki an guztiak batuta alkar joka zebiltzanean, Ussauri-ko jaietan pilarmonikarekin aritutako irundaŕa, Antonio-rekin asaŕetutakoa, beste aldean sartu zala Antonio aŕapatzagatik. Bere atzetik jaŕaitu zion eta atxitzean ebain-ebain egin. Au ere esan bear duguna da. Enparantzan gertatutakoaz gañera egun artako aŕatsean irundaŕa kantari zegoala, Antonio-k berea pagatuta — «¿Zerbait geiago eman bear al da?», galdetu zuan ardandegian, alegia bestea kantari aritu zalako. Ta txikitzeko asmotan zebilkionak jo bitartean esaten omen zion: — «¿Zerbait geiago eman bear ba-dan? To ta to...» ukabiléz aspertu arte, edo apurtu arte, erazo zion. Leenean barka, bigaŕenean urka.

Nola-ala zutitu ta eraman zuten batzuen artean. Egia da, egi-egia, arengatik sortu zala iskanbil ta boróka ura guztia; bera zala-ta, berak ezik, askok min artu zutela. Ta norbait mutuŕeko on baten gaŕi izatekotan, bera lenengoa. Baño usauritaŕa izan ura ere ta an joan zan Letxa-ko sakristaua izana.

Áranopoleta-k ziona : —«Árano, aŕanoa; baldin ba-dite ¿zintzotuko al aiz?».

Manuel-ek : —«Esak orain soñu-jotzaleak Gaztine-ko lukainkak mugitu zituala kantari».

Juantxo-k : —«Oraindik ez duk azkena artu».

Zilargiñak : —«Iri bai aboko-zuloan eman ditekela. (Beatza aboan sarturik). Lukainkak ezik ortzak ederki mugitu dizkik. Bi agin osorik eta biak ustelak... ji, ji, ji. Gaitz erdi, motel, txuruterako ez duk kalterik».

XII

ITXASOA LAÑO DAGO

Andre Axentxi Martin-en etxetik atera zan, esanaz:

—Nereak asko ez ditutala besteen miñekin gaizkitua nago.

Ta bere maatsara abiatu zan Martin-en izeba. Ordea, ixkiñeko goxotegian sartuta kopa erdi bat pañar eskatu zuan. Ta foña atera bitartean patrika-zuloan usmatuta ogi-apurák bilatu zituan. Goitik beera asi zitzaison apurák botatzen pañarari. Ta añitu-itxuran ala dio :

—¿Ogi prantzes? Berak edan du. Bete ezazu beste erdia.

Martin gixajoak bai neska atsegin, baño bai aritu ere gizonki. Biotza gizonak ez du emakumearentzat bakařik bear. Gizona beti gizon. Oreindegi-ko gizon epelak, laŕu bi ta lau anka.

Oean zetzan orain. Aŕiak izugaŕizko zauria egin zion kopetan, kopeta eta ileak aŕapatzen zizkiola. Aussarki ibilita, auŕeneko tokietan, kaskatekoa artuta atzera etorri zan. Min aundia zuala igaŕita ez zion iñori esan nai izan, ari zitezela gogor, jo zezatela bizkor, ez beintzat berari begira guztiak egon. Ta iñork uste gabe boŕoka-tokia utzi ta, bidez-bide, ordu-erdiko bidean, odola arpegitik beera zeriola bera bakafik etxeratu zan. Sendalariari deitu, miña garbitu, josi ta lotu ta buru-zuri zan oeratu. Artean irí ta santsoz garailariak zetozenean Antonio besoan eta Martin ezta ere gogoan.

Beren eginkizuna ain ixilik eta ain poliki eraman

zutelako gazteak arotu zitezkean; baño onuntzean ez ziran ain begiratuki ibili. Ta bai oretxengatik eta bai zaurituak izan ziralako, Simon Goia ezik, eriko guztiek jakiñan gañean zeuden gertatuko borókaz. Baño garaipenaren poza neuríz gañetik zijoakiela, ajola zien bost gerokoengatik.

Ajola, ez ajola, erieta batzuk ezik, utsean atera ziran. Zilargiñari galdetu zioten batean—«ni eraman egin naute», erantzun zuan ta galde bera Antonio-ri eginda, ixilik ezin egonik, —«ori beriz ekarri egin dute» ta «ji-ji»-ren ordez doi-doi itzul egin zuan malkirkatu ez zufenean. Orieik difuzu, irakurle, biak malu batez joak.

Biotzean zauria ta buruan ere bai. Burukoa, aundi xamaña izanañen, ez zan ajol aundikoa. Idikia itxiko zitzaison, jost-aria kendu ta beriz ere izango zan mutil. Gaizkane-k ederki zaitzen zuan bere anaia. Bai bear ere. Len esana daukagun bezela, anai-añebak bizi ziran bakañik, gurasorik gabeko seme-alabak bai-ziran. Eriko sendalariak sartu-aldiak egiten zituan etxe artan. Gizon atsegina ala ere. Jardunean ederki gozarazten zien beta. Mugaz beste aldetik asko maite omen zuten. Aras-erira joaten ba-zan ez zan aterik bertatik deituko ez ziotenik. Europa-ko geñatean zenbatetan ez ote zan joan Prantzi-menpeko eñi artara bertako sendalaria... sendatu beañean iltzera eraman zutelako. Eta Usaúri-erriak ere zenbat ogi ta araultz ez ote zituan bidali Aras-ko gizajoak bizi zitezen. Usaúri ta Aras-en erdian muga bat dago ta berek tajutu gabeko muga aren joan-erriagatik alkar asko maite zuten. Len Usaúri-koak Aras-koengandik laguntza artuak ziran ere. Ofa bi benetako euskaleri.

Ta onelaxe edesten zituan zenbait gertaera. Baño

Anakleto zaŕa bakarík bizi zanaren eriotzak bezela ez zion eriotzik oŕenbesterañoko ikutua egin. Auzokoek deitu ta etxeán sartu zanean gorputz zegoan. Sukaldean sartu zaneko batean kaioletako txori guztiak goseak ilda, orduaria geldik... .

Adiskideak ere, tarteka, etorí zitzaitzkon Martin-i. Guztiek aitzaki berbera, alegia berei esan ba-zien, ez zutela zaurituta ikusi, ikusi ba-zuten zer esanik ez berari laguntzen egiñalak egingo zituztela.

Manuel-ek zion:—Naiago níkek ire miňa artu ta ez Paulino-ren boŕoka ikusi gabe egon; baño ik bi kalte izan dituk.

Aŕanopoleta-k:—Garbitu genizkiken; ba'letozke beriz.

Zilargiñak uŕena:—¿Ez ote dik Antonio-k buruan kosk egin?, oŕek ortzak galdu dizkik.

Ta Antonio asi zanean guztiak paŕez lertu bear, Martin-ek ere. Ortzen beaŕez itzak «fi-fa»-ka zijoazzkion abotik kanpora:—«oŕenfeste istilu aŕi koxkor fatek fi odol tanto atera dizkiolako».

—¿Eta ik non dituk ortzak an «granórik» azaldu ez ba-zan, edo iretsi egin itukan?—ekin zion Juanxko-k.

Egileak ez luke jaŕi nai zilargiñak esanda an entzun zuten astakeria.

Uŕena Paulino sartuta eskua luzatu ta ala zion Martin-ek:—«Nere osto zimela josi akiok ik ondo irabazitako garaipen-uztaiari».

Zer paŕ-egin ederki ematen zioten Martin-i aietako batek edo bestek efkeratzen zitzaiotenenan, buruko miňa izanagatik. Zauriagatik ba'zegokean txutik lotarrako baizik oeratu gabe; baño odol-ixuria mara-mara joan zitzaiola-ta ederki auldu zan gaztea. Zurikail eginda nekez zijoakion bakartasunean aŕatsaldeko beltzura.

Oean gaxorik gutxitan gelditzen danarentzat ez da jasangaitzagarik aŕatsaldeko ordu goitiun luzeak baizik. Gaxoa bere buruaz eŕuki da. Bat da osasundunen mundua, bestea osasungabekoena. Donostia-n izango ba-ziňateke, eŕiko eritegia ta zezenlarien eŕastun zabala auŕez-aure ikusiko zenituzkete; batzuk gogoz ojuka, besteak oňazez kaŕaxika. Bizidunen eta i  en munduen tartean gaxoena jaŕi diteke, ez bividunak ez ilak ez diralako. Eta askotan   zenbatek nai lukete, gorputzari atsedena ematearen, eridun mundutik i  nenera joatea! Ta naiz Martin o  en tankera ikaragar  ian ez egon, ezta gutxiago ere, bere a  eba zeregiňetara joanda baka  ik uzten zuanean, lekoreko argia ta bizia nai.

Gela ixiltasun go  enean zegoan. Leiotik zear oean zegoala zero-zola urdiňaren puska ikusten zuan. Aren azkena   zein goian zegoan! Biga  en atsaldez zekusan auŕeko efnea eguzkitan piztuta. Eguzkia berantz zijoaneko garaian itzala kurku  oa bezin geldiro gorantz zijoan, azkeneko leioa atzman, ga  eko telak atxitu ta   plist! u  engo goiza arte printzarik ez ikusi.

Eguna aitzen dan garai ortan guztia bukatzen dala iruditzen zaio eridunari. Txoriak ere joan oi dira. Eŕia ixilpean. O  engatik otsa zabaldu egiten da. Ta aldendu xamar  a ez ba-dago ongi entzuten da. Martin-i nabari zitzaion Gaztiene-ko itz-susmu  a. Aiek an, bera oean. Baita ere bela  iratzten zitzaizkion mutil bat edo besteen oiu zolia, itzai baten «aida» ere bai.

Udazkenean «igaztain eŕe-beroa!» ojuztatzen duan gaztain-saltzale andre lodi aren tokian, kaleko mutur  ean, orain «jbostean bi laranja!» dasa beltzez jantzi-tako emakume batek. Aŕotz batek «jmielero, miel, miel di Alcarria!» otsegiten du. Ondarabi-tik etorri oi dan emakume arantzaleak, bestetan kaŕam  eoak ere

saltzen dituanak, abots bizi batez «jtxardin bizi-biziaa...!» deadar dagi.

Ta kristaurik ikusten ez ba-du ere, ojuak, mamiak balira lez, kaleetatik bañena bi zanko zintzilik iruditzen zaizkio Martin-i. Martin-ek ederki daki zein garaitan zein ojulari etori bear duan eta len noizbeingoak zerizkionak, berak oi-ezko garaian egunero igarotzen dirala ba'daki.

Irakurlea konturatu bedi alako zori txarean biotzako zauria nola eukiko zuan. Gure mutila oeratu zanez geroz, garaipenaren beria jakinda, Mirele besterik ez zuan bere buru gaizkituan. Lenbiziko egunean alaitu zan artutako miñaz. Alegia bera oren era txarean zegoala jakiñik, maitasunez ikututa beratuko ote zan, mutila erukia naia xamurtuko ote zitzaison. Martin pozik zegoan berarengatik neskak ere biotzean nekea zeramakealako. Ez berari gaizki nai ziolako; ala geratzen ba-zan benaz bereganatuta zeukanalako baizik. Eta berak oartu al ba-lezaioke, ordañak tontorka emango lizkiroke. Berak ikusi Mirele-k zer egin. Bear ba-zan eskumuñak emango zizkion. Ura poza ala ba-litz:—«¿nola esan dizu?», galdetuko zion zekarzkienari. Agian jakin naiet beterik Gaizkane-gana joango zan. Ura zoriona baldin ala gerta:—«¿ni ikus-teko gogorik ez al dizu erakutsi?», egingo zion bere aŕebari. Albait... ¿bere etxera etorriko ote zan? Ura zoramena orduan. Etofita ez-ajola egingo zion Mirele-k, berak ba'zekian ori, emakumeak alakoxeak oi dira; artean bañenen naiko lan.

Laugaren aldiz zekusan Martin-ek gañeko kebide (tximini) mutuña iluntzen. Ta iñondik susmorik ez. Lau eguneko ituna piloto zitzalon gizajoari. Edo ala iruditu beintzat, maindireak kokotz azpiraño ezin eka-

ri. ¿Ba'al zitekean Mirele-ganako usteaz orain ere oker egotea?—«¿Baño egia zer da ta zer gezuña?», egiten zion bere buruari. Ta kontuak aterata adiskidetu ziranez geroz bi bider eman zion eskua: bein ituri-ondoan, esku bustia; bestea eskaratzan, esku beroa. Biak alkaárekin, bakaárik, egon ziran apal-auáreko artan. Berak luzatu zion eskua. Ta Martin-ek gogora zekarzkian neskari zegozkion ibilerak, itzak eta xetasun guztiak, liburu onetan azaldu dugun bezin zeatz, iñor bere baitintasunaz aritu lezaioken moduan.

Martin ez zegoan oker. Berak ala zion. Alkar-arteko begitarte ona egizkoa zan, benazkoa. ¿Ta bere burua gutxietsiko al zuan Martin-etzaz galdetzekotan? ¿Ez al zuan Josune-k galdetu, ostatuko neskarekin zer ikusi gutxiago izanagatik? ¿Eta beste guztiak?

Ta Martin guztian zuzen zegoan onetan ez beste-rik: beste iñork baño zer ikusi geiago zualako, oretxegatik beragatik, ez zuala antzik eman nai. Aretarik jartzen ez diozun neskak ez begiratzeko esaten badizu, ba'dakizu zer nai duan.

Gañerakoan, an bakartsu zegoalako, ezerk galazten ez ziolako, Martin-ek jator zeukan adimena. Oi-ezko argitasunarekin miliskatzen zituan burutapen ariñenak. Ez zan itxu-mustuan ari zan mutila. Aírika aritu zalako neskari itxuski iruditu ta muxin egin ote zion oldozketan ere jaí zan. Baño ofetzaz ez zuan bururik autsi nai izan, ez zitzaion atsegin neska bati mutila adoretsua edo koldara berdin iruditzea.

Ordukoz buruari geldialdia ematea gogoratu zitzaison ta bere aébari galdetu zion:

—Esaidan, Gaizkane: ¿nortzuk galdetu diten nitiaz?

—Ba' apaizak, botikarioak, bere bi alabak ere bai;

Santustene-ko andreak, mugazai gazte orék, Juan-txo-k ere bai, beriz, goizean...

—Baño ire lagunarteko neska oriek..., —geiago eziñik esan zion anaiak.

—Ba' Josune-k, Ester-ek, Bitorene-k.

—¿Eta iñork geiago ez?

—Ez.

—Ea ondo gogoratu.

—Ez dut uste.

—¿Nortzuk daude or leioko bean?

—Ba' mutil gazteak, neska batzuk ere bai; Margarite ere ortxe dago.

—Urtzi nazan pixka bat, ařen, bakařik. Lo egingo diñat.

Lo... zera. Len baño okeŕago. Atal onen izenarekin asiera duan abesti edo kanta ezpañetan zerabilkian. Biotza eztařiraño igo zitzaison.

Odei beltzak beteta alkarganatzan diranean euria botatzen dutela diote.

XIII

IDEKOAK ALKAŘEKIN

Goizetik euriari erazo dio ta akabo, segi ta segi... arátsaldeko lauetan oraindik ere lanbrotua dago. Euri mamela ari ta ari egun guztian. Sapalo-burnietan txir-txir bustia bustiaren gañean. Burnietatik beera tanto lodiak dijoaz. Leiarák beríz tantoz josiak daude. Lengo baten gañera etoríbería erori, aldameñekoa ikutu ta txalburuen gisara jeisten dira bidean atxitzen dituzten beste tantoak iretsiz. An-emenka ari dira txalburu txuriak. Guztiak oartu naiean begiak igortzi genezazkike.

Urbide-tutuan tan-tan soñu nabarigaría eten gabe.

—Jakin nai ziñan ta jakin din.

Burua altxa gabe, oratza eskuan, lanari ekin bittartean jaíaitu du Bitorene-k :

«Irun-go sendalaria ařikalariekin batean izango ote zan bururatu zitzaisonan ta nai ez zuana jakin din; baten bila, bestea etorí. Nonbait gazte ori baezpakoa dun. Irun-dik Endaya-ra omen zijoan dantzategi batera, tranbia betea egoki ta neska baten magalean omen zegoan. ¡A zer bi!».

Oratza oialatik pasata «¡nnn...!» egiten zion batere konturatu gabe.

—«Neskak txamáreko patriketan sartzen omen zizkion eskuak...»

Ta «¡nnn...!» beríz ere.

—¡Josune gaxoa! Neskak alakoxe txatxoak gaitun. Ori zoratu dun ta naiko lana ba'zeukan bere buruarekin—ari zan Ester—. Bat atzetik, besteak iges,

Berek nai dutena guk artu bear. Ez daukagu guk autatzerik. ¿Noiz etoríko ote da mutilen atzetik ibiltzeko «moda»? Bidean ote goazen nago. Aiek nai dutenean etorí ta guk zai egon bear. Ezetz esaten badiegu- ; eta nork esant-bost ajola die ta bestea bilatu. Guk ez zeukanagu ofelako maukik. Guk naita ere egon egin bear. Dantzan neska-pil aundia ikusten diten, zer nai ura iritxi, non nere gogoa an nere zankoa. Guk ontxoen bat ikusten ba-diñagu, non bere zankoa an gure gogoa. Josune ondo neska edera dun. ¿Zer nai ote din xanko maxkal arek?

Euriak baño jasa gogoágoa zekarén Ester-en jardunak.

—Mutilen atzetik ibiltzeko «moda» dion? — eutsi zion Bitorene-k jakin naiez.

—Bein oitura jariez geroz zer lotsatu ez litzake —erantzun zion besteak—. Beintzat aukera izango genuke : non guré gogoa an geren mokoa. Nik nereztat ba'zkiñat nor mokoratuko nukean.

Indarka ba-zan ere bañenen zebilkiona bota zuan.

—Ja, ja, jait —ekin zion Bitorene-k. Eta andik pixka batera :— «Orduan orain baño ostiko geiago botako lizkigutekenan gizonek. ¡Ez lieken poz txara emango!».

—Ez, ordea, zilargiñak emanda, Antonio bezelako batek emanda. Atzo or itunan ordi-urde, lengoañ arika irabazi zutelako garaipena jaitu bear omen zutela. Antonio ta zilargiña bi zankoak baño adiskideago : ba'dakin, bat iñistatzten ba-da besteak bereala eusten zionan. Antonio-k sudur-aurean zeukan platerka, zaldi batek ostikoz bota ezin alakoa, gero min beritua baño okeñago jarri ta azkenez «korkoitán», donostiarék esaten duten bezela, lo. Orixo ba'dago batxo. An aritu itunan alako indarketan «jan igualian»

nor baño nor geiago izan. Martin bai, eskolako orduaria baño seguruago...

—Bai, Martin, ura joan bai baño burua norengana dijoakion ba'dakin. Kopetan artutakoarekin orban geldituko omen zaion, baño ¿ez al dun uste non zauria aundia ez ba-dan, gizoneri askotan eder diela orban bat edo beste arpegian?—galdetu zion Bitorene-k.

—No, orixe igarita natxion orain baño len. Bein baño geiagotan ori berbera oartu izan diñat. Martin dana-dala ere mutil egokia da. Ora asko poztu naun bera sendatzea. Ala ere kopetilun dabil egun auetan. ¿Oren gogor eldu ote zion Mirele-ganako maitasuna? Ondo, oso ederki dagoala berberak zion, ¿zer ote du goibeldu lezakeanik? Maitasun-arazoak, orain txarvak len gozoak.

—Maitasunak miña berarekin dakar. Maiteko ez ba-genu galduaren atsekabea edo miña genuke. ¿Al litzake onena iñor ez maitatzea? Ez. Maite ez duanaren bakartasun-miña, ain gañatza izan ezañen, okeagoa da : bizi guztian irauten duana ta bizitza lañegia egiten duana. Maitasunak gozamena dakarkigu; onen ondoren, askotan, naigabea. Ba'dira maitadunen artean min gutxidun batzuk, besteak min aundidunak: aiek zorionekoak, auek zoritxañekoak. Gure bizitza alakoxea da : maitatu egin bear dugu, Jainkoa, gurasoak, adiskideak... Nik zerbait geiago maitatu nai nuke, baño zein artzen dan begiratu bear zaio : txanpon baten atsegíñak eskubete zoritxar-ontzuré ez dakarkigun.

«Bein bei bat arakin bati saldu zioten, bere txala beste bateri. Arakin biek ostikoz berezi zituzten amarumeak aien marúak ulertu gabe...»

Bitorene-ren itzen atzetik tin-tan, tin-tan, ituna, tristia, ari zuan.

Ester euriaren tantoak ugaritzeko gai zegoan, alegia begiak busti-busti zeuzkala.

—Neska —esan zion— oraintxe biotza ondo beratu didan. Ez zanala xamurkeririk esan.

—Baldin, Ester, nik irakuítako irakurgaia irakuí-ko ba-unan, beratu ta xamurtu ezik, bigundu ta guritu lezaiken biotza. ¡Ai, ori edesti ituna! Oraintxe aterabería dun, euskerazkoa. Ba'dakin orain euskal-idazoleak gogotik eutsi diotela euskal idazteari. Asmo oretaz jaiotako irakurgaia dun ori. Irakurgai-bidea ondo baño obeto deritzat euskera jasotzeo. Ortik, ortik leiatu bear lukete idazoleak. Irakurlea zaletzen ba-da, ez dio iñork kenduko irakurgaietaraño griña.

—Esaidan ba, Bitorene; egualdi onekin eta ik-esan bear dituenekin áras motelduko gaitunalakoan nago. ¿Non gertatutzat dauka egileak irakurgai ori?

—Moteldu edo mutildu... uruti, ez da Euskalerian gertatua, naiz irakurgai oren lenenburua euskalduna izan. Irakurgaiaren izena auxe da: «Árobi-tar Danel». Au omen zan ogeitabi urteko gaztea, Amsterdam-etik irten ta Oslo-ra zijoana. Tira, nik ez dizkiñat xeetasun guztiak esango, axaletik baizik.

«Amsterdam-eko kai aundia nolakoa dan eta zenbat ontzi dauden esaten din. «Finland»-ontzian itxasoratzen dun : Itxasoko ikustea, eguzkiaren jaikitzea uretan, gau zuriak, ontziko bizi-modua ta abar. Alderdi au polita dun. Beste toki batean ere esaten du Oslo-n (Uslu irakuí) Donibanetan ordu bateko gaua izaten dala —gaurik motxena urte guztian—ta aitzaki oreakin asko-moduzko jaiak eta dantzak egiten omen dituzte «gau zurian».

«Beste askoen artean, ontzi berean —lengo bide-rik jaŕaitzeaŕen— ama-alabak dijoaz : alaba, amar urteko; ama, oso gaztea. Neska ta Danel adiskide

onak egin dira, geienean beragana dijoakio neska txikia. Amak pozik ikusten ditu bien arteko jolasak eta oso begikoa zaio alako gizaseme jostalaria. Mutila gorputzez Árobi dala esan diteke, aña edo aitza bezin gogoña : airea, Danel izen txukuna bezelakoa».

—Baño adizan—ekin zion Ester-ek—eta Danel-ek ȝbai al zekiñan Noruega-ko izkuntzan edo berek egiten al zitenan Danel-en erara?

—Ez din jartzen; baño bear lukela deritzat. Gauzak berez dijoazela, bada, ontzitik ateratzeko garaia irixten zaie. Legoératuta alako min aündia dute alkaři agur esateko, geiago ikusiko ez bai-dute. Danel-ek mun ematen dio neskatoari. Nesak negar ta Noruega-tar emazte politak burua makurtzen dio Danel-eri onek ginbaña kenduta abiatzeko asmotan asten danean.

«Auŕera jaŕaitu baño len, egileak bultzi ta ontzie-tako gizartea nolakoa izaten dan adierazi nai luke. Zer dala-ta gizon-emakumeak geiago alderatzen diran alako topo-aldietañ. Agian arisko berbera izateak alkařen ondora ez ote dakarzkien. Edo oi dan bizi-lekua utzi ta bākartuta eŕezago bata-bestetu ala naiak aisago azaltzen ez ote diran.

«Uŕena Oslo-eria darakuskigu. Danel Oslo-n zer nola dabilen. A, ta adiskide bat ba'zuala esatea aztu zait: Bruck izenduna, Suiza-ko semea, Danel-ek Bilbao-n ezagutu zuana.

«Biak alkařekin joan oi ziran goizero ondaŕera, an igari-jantzian jolasean aritzen ziran. Bazkun bateko bazkideak egunero, edo maiz beintzat, jolasbidetzat boŕokaldi ikusgariak egiten zituzten. Bruck-ek zirkuituta gurea ere tartetu zaie ta nonbait mutil bikaña iza-ki Danel, sasoiezkoa; bertakoek asko aundiester gure indarkaria. Guztiak menderatzen zituala ikusirik egun

batez gogoñenarekin arituta izugarizko boñoka egin dute.

«Neska, izketan nekatu naun» — arnasa artuaz egin zion Bitorene-k.

—Segi zan, segi zan, ba'irudin, eori aritu iñala ȝnork irabazi ziñan?

—«Ba' ustegabeko aldarte batean, gañondoko eraiak geiegi estututa-edo, Oslo-tarak ajola aundiko miña artu du. Gaxotegira eraman diten.»

«Euskalduna boñokalariaren etxera joan da barkapena eske, Bruck eta baziide bat edo beste berarekin dituala. Aita atera zaio jakiñaren gañean ta joka asi ia maladitik beera botatzen duala. Lagunak tarte dirala ez da oker aundiago. Danel-ek ez dio gorotorik artu aita dala-ta, bere tamalez erukitu zaio.»

«Il da boñokalaria gaxotegian...»

—¿E? ¡Jesus, ene!

—«Poliziakoak Danel-en ostatura joan ta kartzela-ra daramate.»

—¡Jesus, Jesus!—beñiro eragozten dio Ester-ek.

—«Ufengo atalean espetxea (kartzela) nolakoa dan ta barén artan Danel-ek zer biziera daraman astirro edestutzen du irakurgaiaren egileak. ¡Bai negaragaría dala!»

—¡Danel gixaxoa!, segi zan, segi zan.

—«Epaibidean jartzera dijoaz Danel. Bazkunakoek lan gogoña darabilkite bere alde. Alargunari jakiñan gañean jaři diote ondañean gertatu zanaz egi-egia esanda. Bere aitak egin zion areraz erukitu zaio. Min ematen dio itxuraz ona izan bear duan mutila nai-gabeakoa izan dala-ta ain luzero espetxeen egoteak, bere eritik kampora, bakařik, oso atsekabetuta, arek izango duan garbaiarekin.»

Danel-i espetxeen ikustaldi bat egiteko gogoa da-

torkio. Gero-ta ikusi-nai audiago ta eruki geiago daukakio esipeko gaxoari. Lau ilabete dirala espetxe-ko ate-sarearen ondoan ikaragañizko gertaera jasotzen da, biotzak pir-pir jarri alakoa: «Istoritako alarguna «Finland»-ontzian ezagutu zuan emazte lirain gaxoa da!»

— ¡Ai, amat — dio Ester-ek.

Ta Bitorene-k nekez ba-da ere darrakio:

— «Begiak iturí-jario, itzik ez ta zotilia bai, atera egin da alarguna. (Aren samiña! Beraz, Danel-en biotzak dio, ez senariik, ez aitarik...)»

— ¡Nola aitarik ez? ¡Ai, neskakt!, segi zan, segi zan.

— «Osterontzean ikustaldiak maizago. Ezin egon alarguna Danel ikusi gabe, ¿maitasunaz ikututa? Danel mutil onak eruki audi bat batzik ez du sendi arenaganako ta onginea besterik ez».

«Egun batez alargunak bere maitasuna erakutsi zion, Danel-ek alarguna begi on-onez ikusi, ezin ontzat eman bien arteko maitasuna; bera tarte zala gez al zuan senaria galdu?».

«Epailariek Danel espeluetik eruge azkatzeko oso egun gutxi palta dira. Alargunak bai daki azkatuta betiko aldegingo duala. Ezin, ordea, alako oldozpena eraman ta gero ta geiago ařenka ari zaiola, alako biotz-ohaze batean ezezkoa ikusirik dasaio: «¡Emaidazu, bada, kendu zenidan senaria!».

— ¡Oí, ene!, segi zan, segi zan.

— «Danel espeluetik atera da. Zoñota eskuan ontziratu baño len bere boroka-kidea datzaneko ildegira negar-agurá egitera joan da. Ontzian sartu ta itxasoz eta legofez Euskaleñiratu da».

«Etxean dagoala Oslo-ko Bruck-en idazkia artu du. Bertan dasaio Miren alarguna il egin dala. Iide-

gian izanda, ez batek ez bestek ez zekitela, Danel belauniko ta buru-utsik bere senaáaren ilobian ikusita, min egin zitzaison aren urbil, «bi senaáak» galdu zituaneko tokian atsekabeaz nola il zan.

—¡Neska ixil adi! ¡Edestiaren ituna! ¡Maitasunaren atzapaáak! ¿Bai al du geiago? Segi zan, segi zan.

—«Oraingoan bukatuko diñat, nekez eta gaitzez ba-da ere. ¡Nik egin dizkiñat negaáak ori irakurtzen! Ba' edesti au zortzi urtez geroz luzatu egiten da. Ibone alabak, berberak, idazkia egin zion Oslo-tik Danel-ekin ezkondu naiez. Ibone-k edesti itun onen xeetasun guztiak jakin zituan. Ibone emezortzi urteko gazte lirain argi ta biotz-bera zan, ziñez; bere gurasoen maita lea ba-zan, Danel-en biotz onaz maite ta eŕuki zitzaison ere. Idazkiarekin batean bere irudia bidali dio. Ta Danel-ek ikusita «bai, bera da» esan omen zuan, «Finland»-ontzian jostatzen zuaneko neska ezagututa».

«Azkenik «zeruak ala naiko du ta ez nakion gaizto» esanaz Oslo-n ezkondu, ildegian izan ta eri negaáerazle ura utzita zoririk onenean bizi izan zan Ibone bere emaztetxo politarekin».

—Oraingoan bukatudun,—asmatu zuan Ester-ek— Baño ez zekiñat, azkeneko zorionak ez dit osoro kendumengo zorigaiztoa. Danetara ere naiko lan izango ziñan egileak Ibone mutilari nola maitekatu zitzaison egia-itxura emateko, ondo egin ba-du ere, naiz-eta urte kontuz leiatu izan. ¿Nor da egile ori?

—«Anabi» dalako bat—erantzun zion Bitorene-k—, Bai, azkeneko gai ori ez zitzaison eŕaza izango ta baliiteke bear ainbat lortu ez izatea. Orain Osauri-n omen dabil irakurgaigin ori ta nork daki izenak aldatuta nola ibili bear diñagun bere liburuetan. Amaika pafé egingo dute oriek ixilik, berek beren liburuetan dantzatu duten bat ikusten dutenean.

Onetan atea idiki zan ta Bitorene-n amak ala dio:

—¿Gaur ez al duzute merendatu bear?

Ta argia piztuta, ilun bai-zegoan, arituta:

—¡Zer dira arpegi oriek! ¡¡Baño euri-txirioa oñetaraño etorri zaizute!!

XIV

ERETOREA TA ÁROTZA

—Atoz bařena, atozia gizona... Ez dio ajolik... ¡Baldin iñora joan bearik ez ba-daukazu! Beraz, Usauri-aldean... ederki, ederki. Ortik, ortik... ofatx.

Usauri-ko éretore jauna gaztanbera baño biguna-goko gizona. Don Inazio on-utsa zan. Ta ontasunak berarekin dakaren pozaz gañera, txit atseginduta zegoan árotz batekin arkitzeaz—erí txikietan ala gerta oi da batez ere jakindunen artean—ta oraingoa beintzat aditzera ezagutzen zuan.

Árotzak zankoa zertxobait altxata—éretoreak atzettik zekařela—bařeneratu zan, ilunperatu zan. Ta ez ikustea batetik, ta bestetik atauréko ugařiek atetik bařena sartuta ematen zioten geldik ezin egona, nora zijoan ez zekiala ba'zebilen éretorearen otsaren atzetik ta noizbait ate argiduna ikusita aratu zan.

Atea zabalduta eskutik zeukan éretoreak; ordea, nekezkoa zitzaion árotzari aurétiak sartzea. ¡Beñere ez bai-zan apaiz-etxe batean izant! ¡Nolakoak ote ziran apaizen etxeak! ¡Berak ba'al zekian iñoi belaunikatu bear ba-zuan ere!

Baño bear zan bear ta gure gaztea auréra. Árituta gelditu zan. Jangela ura beti ikusi oi zuan bezelakoa. Mai aundia erdian zapi zabal batekin estalia; zapiak txirikordak zintilik ertzetatik. Mai-gañetik argi-ontzi potxolo edeňa sabaiatik beerak; orain «buffet» deritzatoten apalategia. Aulkia txukunak ederki bazterera-tuak. Irudi batzuk ormaetan zintzikilik. Éretoreak non exeri adierazi zion ta, aldez beste, auréz-aure jaři ziran maiaren ondoan. Ere zezakeala.

Oraindik ere ezin zituan alkartu Don Inazio-ren jantzi beltz luzea ta jangelaren ikustea. Arotzak elizan edo kalean beste iñon ez zuan apaizik ikusi. Ta kezkatuta baldin ba-zegokion ere, ango ixiltasunak, ango bakartasunak eta berak antzematen ez zion beste zerbaitik, eretorea bezelako gizon on, txukun, burutsu ta leial batentzat bizi-toki egokia zala baiesten zioten. Ta bere gisaz oldoztutzen edo pentsatzen eretoreak uzten zion tarte aietako batean, ea—bururatu zitzaion —ardandegiko usaia jantzian sartuta zenbait gizonek etxeraño ekartzen duten bezela, ez ote zuan eretore jaunak elizatik kedats-usaia ekartzen.

Arotzak belaíari tink eta, kearen atzetik begira, zuritu egiten zitzaion apaizaren irudia.

—Ba'dakit, emengo oskailariak esanda—asi zan eretorea—lengoan oso jardun yayoa izan zenuala berarekin izketan, gauzen azken-apurétago txikikuntzaz eta neurtu eziñeko txikien aldera bezela aundien aldera ere aritu ziñatela.

—Ez ba'—egin zion arotzak—agidanean axaleko ikutzea zana sakoneko buru-sartzea irudiaziko zion egia aundituta. Igela ez da txalburu aundia, eta neuriz gañeko egia ez da egia ere. Gai orietzaz zerbait aritu giñalarik, ez uste oñen jakinduna ibili mintzaionik.

—Bai, bai, bai—ekiten zion pozik eretore maitiak—asko ikasia omen zera ta buru-belaíri egon omen zitzaizun zure izketaren atsegíñaz.

Arotza lenengoz nabarmendu egin zan alako aundikeriekin; baño apaizak zionez geroz egitzat izango zuan ta oskailaria ez zitzaion bada apaizari «beritxu» arituko. Orduan konturatua zan nolako etortzea egin zuan eri artan eta uste oñek asko txurikatzen zuan. Apaiz-burua ta oskailaria adiskide zeuzkan ta Iusauri

zalako eriska artan ez zan bakařik galduko. Gogoetak kearen bidetik zijoazkion.

Baño bat-batean «kopatxo bat artuko duzu» esanaz exeri-tokitik biziki jaiki ta apalategira abiatu zan éretore jauna.

Arotzak «ezetz» eta «ezetz» esanagatik éretoreak atetileri tira ta beso beltza luzatu zuan apalategi bañenera.

Apaiza neskame ikustea (ontziak eskuan) beriro asaldatu zuan gure gaztea. Berak ez zuan beñere apaizik etxe-beaferan ikusi. Arotzak «ezetz» eta éretoreak «baietz» bereganatu zitzaion. Arotza txoil estututa zegoan. Ia aitorzeko besterik apaizak ezagutzen ez, esan zitekean, ta bera nagusi ta éretorea moñoi ikus-teak oso lañituta zeukan. Botilaren txuri arek ur-be-deinkatua edanda obenik egingo ez ote zuan bururatuazi zion. Bere burua lotsagarituta, agian ez ziola kopak onik egingo, ez zegoala oituta, esan zion ta, egia esanagatik, bestela edozein tokitan edan zeza-keana, ez artzea lortu zuan. Éretoreak ez zion eskeñiari geiago eragin, ez bai-zion eman nai gaitz egite-kotan.

Lengo erara auñez-aure jaři ziran. Éretoreak betiko arpegi atsegüñarekin «ederki, ederki» zion. Arotzak ezin ezere asmañu, ikararen kondaira biotzean zuala. Orma-erlojua asi zan ta orduantxe ba'zirudian ango utsunea arek beteko zuala. Bostak jota aren mintzal-dia bukatu zan. Len baño ixilago. Ordea, zerbaitek piztu zituan. Éretorearen etxe-atze aldetik, ez uñuti, bi emakume ari ziran izketa bizian. Itzak érazki belañira-ten zitzaizkien. Batek ala zion: «Bi seme, biik armetan; mendia bete ardi; etxea bete ganadu; anima bakařa. ¡Nola bizi naizen!» Biek pañari eldu zioten. Orduan éretoreak esan zuan:

—Ori andre Axentxi zalapartan duzu. Katuak urtean bost duroren kaltea egiten omen du. Dion guztia berari sinistekotan, ez da nekerik bearengana jo ez duanik, ez da lanbiderik gañeratu ez zaionik, ez da zoritzarik atzaparák luzatu ta gaitzegin ez dionik. Arteen, egia da gaxoa lanean gogotik aritzen dala; egia ere zertaz mindu ba'duala, eta orobat egia bere biziera neketsua zertxobait arintzeko gozagari zer dan ba'dakiala.

Eretoreak begietan ezagutu arotzari aditu ziola ta andre Axentxi-ren beri iñori adierazteak kezkatuta, urena jaíaitu zuan:

—Eri auetan, bai Usari-n eta bai Eñondo, nere erian, eritarek alkar ondo ezagutzen dute. Erian izandako egiteko guztiak—onak eta txařak—orok ba'dakizkite. Bakoitza bere izaera dan bezela azaldu oi da. Ta ainbestetan alkařekin egon oi dirala ta alkařen beri ederki jakin oi dute. Bakoitza, ura bera ta ez beste. Noizbait okeřeko ustea sinistarazi diteke; bafio ez beťiko alkařekin egonean. Eritařak, beste edozerk baño, esanak, ibilerak, egintzak, obeto norberetzen dituzte, nor nor dan azaltzen dute...

—Eta ořetxengatik—ekin zion arotzak—izan oi da izengoitziz deitzeko oitura. Jolasgařiak izaten dira zenbaitzuen izengoitiak, ain zeatz asmatuak, ain bete-betekoak. Izengoiti egoki batek beste edozerk baño obeto adierazten du nortzaz ari geran: ura bera ta ez beste, len esan dugunez. Alako bat-edo-besteen ondo ipiňitako izengoitia gogoratzen zaigunean irigaría izan oi zaigu. Edonork izan lezake izen bat edo beste; baño izengoitia arena berarena. Oitura itxuskia dalarik, alkaři ez min ematekotan, or nonbait; ez, ordea, geren deun-izen ederak baztartzeraño. Baño erixketako alkařen beri jakite ořek gaitz askotatik...

—... aldendu lezazkike eritarrak—artu zion aria eretore jaunak—eta oretaraxe noakizu. Gaizki-egin asko ez lirake izango gaizkilearen izena zabaltzekotan. Likitsak ez du nai bere likiskeriak iñork jakitea. Gelenaz ere bera bezelako lizuntzaleeri esango die. Saguzaŕak argiari iges egiten diote. Eta erixketan argia izan oi da. Onek balatzaz lotzen ditu okertzaleak. Uri aundietan soka autsita askotxo ibili oi da. Usauri eri zintzoa duzu. ¿Eta pozik zabiltza zu gure aldean? Arotzak gizalegez erantzun zion. Biga en aldiz ere zuan. Zerbait geiago ere izketan aritu ziran; ba o ez irakurleari ajol aundirik dion gauzen batean. Egonean arotza zerbait lasaitua en, afeak deitzen zion. Eratsua zalarik ezin zakarkeririk egin. Eretoreak zenbat egun egoteko asmoa zeukan galdetu zion, be『iro ikusteko gogoz. Azkenean zutitu ziran, lengo bide ilunetik atera eta eskuak estututa je etore onaren arpegi kutuna!

XV

G A R A T X A

Geienetan, ez eřetoreak, ez oskailariak (botikarioak), ez dira bertakoak izaten eři batean. Ta eřetorea Érondo-koa zan bezelaxe, oskailaria orain gogoratzan ez geran Napařu-ko aldendu xamařeko eřitařa zan. Ori bai, Usauri-n urteak zeramazkiten biek.

«Garatxa» zenbait seme-alabaen aita zan, beti-beti orazia ta guraizeak sakelan zerabilzkian. Gure gizonek ez bat ez bestea ezin izaten zuan bilatu etxeen. Ta bein bere apaingařiak berarentzat bakarik erosi ta «or konpon».

Demagun etxeen bear ditugun guraizeak arkitut-gaitzak izaten dirala. ¿Baño gizon ořek ořen bear aundikoa al zuan orazia, goizean jaiki, txapela jantzi ta etzateko garai jatoria arte ez kentzekotan? «Garatxa»-k goizetik txapela jaři ta etxeen ta lekorean beti tankera berean soňean zerabilkian.

Sendokotea gizona, beltzarana, orain ere an zebilen ařotza noiz ikusiko ote zuan zai, jo gora ta jo beera, bere oskaitegitik zilargiňak zeukaneko lantegira (jai ez izanařen orduan ere itxia zeukan lantegia zaia baño alperagoko arek).

Pozik zegoan ařotzaren etořerakin. Beti bateko gizonekin asperfutu ta alpertu egiten da, «Garatxa»-k zionez. Ařotza askoz gazteago izanařen, «Garatxa»-k ez zuan eragozpenik bera baño ura jakintsuagoa zala aitortzeko. Baño ez zezala uste bera nolanaiko oskailaria zanik. Egia ařotza eratsua ta apala zala izketan.

«Garatxa»-k jakin-gauzetan aintzakotzat artzea nai zuan. Ta naiz ařotzari zor zaion abegi ona izan ta

naiz beronen geiago jakitea aitortu, ikustekoa zan «Gaŕatxa»-ren ondo ta txukun itzegiteko leia. Gogoan zeuzkan auŕeragokoan takaxtu (takatx jaŕi) zizkion itzak: «buru-baŕengo begiak», «ikuste lañotsua», «zentzuko lanbroa», «gaztetasunaren luŕin gozoa».

Bai, noski; «Gaŕatxa», bat; eta an joan eta etoŕi zebilen gizona, bestea. «Gaŕatxa»-k begiak zabalik, baño ez ikusten; ezta ere bururatu ondoan zijoan guztiak bera lako gizon bat an-emenka eten gabe ikusten zuanik. Birakoan ba'zirudian begietako ikusmena luŕean tinkotu ta soñak aren ondotik itzulipurdia zegiala. Bestetan, orko olaetan izaten diran ugalak, lotumutuŕetako koskoŕa aruntz-onuntz dabilen gisara, auŕera-atzera zebilen Usaui-ko oskailaria.

Aŕotzak aguro ezagutu «Gaŕatxa» ta zein asmoak zerabilzkian ere bai; baño ezin aldegin, zapel-kapelek bereala igari ta ain abegi ona zegionez geroz ezin ba' bazteŕeratu. Bieri alaitu zitzaizkien ezpañak eta ordenantxe «Gaŕatxa»-k eta ibili-gizonak bat egin.

—Orain egiten nion nere buruari—urutitik asi zitzaion—lengoan aritu giñan azken-apur ta tximistapuri-en buruz, baldin indar ori guztia atxitu aal bageneza, zein eŕaza litzaken gurea bezelako eŕia («gurea» zion) bat-batean ezereztutzea. Ta geren ondorengoeak esango luteke...

—...esango lukete—erantzun zion aŕotzak—:

Or dakuszkizuten zelai bakartaŕak
Sasoi batean Usaui ospetsua.

—Ederki, ederki, «adiskidea»—ta gogoz ta maiteki estutu zizkion aŕotzaren beatz ezur-biguñak.

Aŕotzak bereala usmatu zuan gañera zetorkion guztia; ezin, ordea, aldendu ta zetoŕena-zetoŕela etsitu zan.

Ikusi dugu: «Garatxa»-k lenengo itzakin eria ondautu. ¿Zein arlo gaitz eta nekagari ote zerabilkian bere «buru-barengoa begietan»? Gure gizonak bakařizketari jařaitu zion; orain, ordea, ařotzak entzuteko eran, len ixilik asia zeukana. Ta ařotza aukeraz ařapatu bazuan ala ez, ta jařaipenari asiera ba-zegokion ařetarik egin gabe, itzak ondo esanda, eztari-zulotik lekorera ortza tarteau oretu bear balitu bezela, onelaxe gañeratu zion :

— Izadia bear guztieta rako lain bai da. Guk bear dugun alia ezik, izadiak nai aña argi, bero ta indařa demaizkigu ke. Jakin jakin bear da : artu-bideak idoro, eraztu ta aal-ezkoak egin. Asmaketa berieri eskerak, gero-ta lan gaitz gutxiago dagizkite langileek. Lan neketsu, gogor ta lergariak, burnizko tresna beriek arinki eramatzen dituzte. Auferakuntzak on aundia legioke gizadiari. Gizonak atzematen ditu izadiaren indařak, bere buruko artara egokitutu ta egintza ikaragariak egin.

Ařotzari ez ondo iruditzen bestea bakařik aritza, alegia geiegizko beriketaren damuak, oparo ixuritakoen okertzeak, beraganako ustea txartu ez zezaion. Nolabait ibili bear batetik, bestetik gaia gogozkoa izaki ta bera ere asi zan :

— Ta bana-biderik ařigařieno tximistoa dugu. Gizonaren idorokunderik gelgarieno orixe dugu. Uřuti-idazkin eta izkiňak ořeri zor dizkiogu, bai aridunak ba-dira ta bai arigabeak. Indař-ituri ori ſtokitara dramakegu! Urte asko baño len eřietako etxeak aidean atxitutako tximistoaz argituko ditugu gauaz, egazkiňek toki beretik izango dute indařa non artua. Gizonak eguzki-beroa ta ur-jauzia tximisto biur lezazkike. Tximistoarekin, beriz, argia, beroa ta eragin-indařa sortu. Sahara-ko eguzki-beroa izugariak tximisto neuři

aundia eman lezake. Ta naiz andik Europa-rako, esate batera, bide luzea izan ta luzetasuna dala-ta bidal-aristik tximistindarā askotxo iges egin, bear bezelako bilkiñak asmatuko dituzte ta nai aña bilduta tximistoa gorde. Lugerí (Lur-gería, Ekuador-a)-ondoko itxaso-etaiko ur-laisterák goikoak bero, bekoak otzak; bada giro-aldakuntza ofetatik tximistoa egiten asmatu dute. Gizonek eragin-indar aundia erabiliko dute auérantzean eta baldin beren obenek Babel-go doñarearen sa-soian bezela nastutzen ez ba-dituzte, mendiak zulatu ta ur-bide berriak egin, nolanai egingo dituzte.

«Gaŕatxa» pozik zegoan árotzaren etoŕeraz. Oso bere aldekoa jaŕi zitzaison. Jardunaldi gozoak zerabilzkiten biek. Batez ere aren gaztetasunak arítzen zuan. Edozein gaietan asi ta zer esan ugari zetorkion. Gazte arek edozeñekin itzegin zezakean. Árotzaganako al-dekotasuna gero-ta urkoagoa zeukakion. Arek esandako edozerk arítu ta ontzat artzen zuan.

Orain entzundakoaz, eskua sakelan oráziari eragin zerabilkiola, onelaxe azkatu zitzaison baŕua :

—Izan ere zuek uri aundietakoek aukera izugaría duzute gain-gañeko ikaskuntzak egiteko. Gure erixaetan ez dugu alako eraztasunik. Zuk ezagun duzu non ibili zeran. Ni askotan nere semeari zein ikasbide eman ta non arkitu zalantzhan egoten naiz.

Oskaitegiaren ondoan arkitu ziranean sartzeko esan zion árotzari. Árotza bildur zan andik asita aren etxeraño sartuko ez ote zan; ez bai-zan iñoren etxera joateko zalea.

Usauri-ko oskaitegia poliki zegoan. Aldameneko bi etxeen tartean, arteka zabal xamar baten zolan, un-tza gañetik zeukan denda polita zan oskaitegi edo botika. Atea orduko nabari zan oskaitegietako usai

berarizkoa. Atea-besteko aldean erakustoki txukuna. Bi usteail audi ezker-eskubi : batek *Chinchona* ta besteak *Magnesia* ziotenak. Baita bi borobil audi, goría ta muskaña, zenbait pitxi-mitxiekin. Erakustokia ondotxo zegoan untzaren gerizpean.

Bařenen, beriz — sartu ziranean — usteail asko, guztiak zuriak beltzezko idazkunakin, geienak latiñezko izenakin. Irakurgai onen egileari, txikitán, il-eziñak iruditzen zitzalikion oskailariak, ainbeste osagai, sendagai, berekin zituztela-ta.

Zoko batean eñiko idazkaria lasa-lasai zegoan exerita oskailaria zetoñenerako. Irurak arpegiz-arepgi, etxeiko nagusiak bi kanpokoeri alkaén berí eman zien ta bařenera joateko ta sal-maiaren ondoko ola «Gařatxa»-k jaso ta banaka, berau azkena, sartu ziran.

Bat-bateko iñun arek itxutu zituan. Ordea, egonarekin iñon diran ontzi ta tresnak agertu ziran leize-zuluetaiko kařaxkoen gisara : abats, eñatilo, tutuxkak, azta ta lobel-neurkiñak, katiloak, autsontzi ta pototxiñak. Ontziak nastuan mai baten gañean, geienak kondaréstan; ixuritako ur-zikiñak eta ez dakigu zenbat neste-boñaste. Ara, eguzkitako ari zuri-aundiak azpizgora jartzean ikusten ditugun lur busti ta txitxareak bezelako itxura zeukan oskailegi arek lekoretik edo bařendik ikusi.

«Gařatxa»-k ez zuan luzaro iraun jardunean asi gabe. Ta asi zan :

—Aurerapen oriek guztiak gizabidearen onerako beti baldin balira, ofetaraxe ongi leudeke; baño askotan urkoari kalte ta gaitz egiteko asmatuak izan dirala esan diteke, ain okeñeko elburua ematen zaie. Zuk zer deritzazu, onegiñak eta kaltegiñak gogoan artuta, ¿sutautsa asmatzea bear zana edo bear ez-zana al da?

Oren antzeko arloekin, jo batera ta jo bestera, asper-asper egiteko bidea zeraman arotzak.

Ta itzegin-ala, auérakoan «Garatxa»-ri iges-egiteko asmoa gero ta sendotzen ari zitzzion arotzari. Arotzak aal zuan ongien erantzuten zion «Garatxa»-ren galderaeri. Egia onek itz edeñenekin ordaintzen zizkiola aren lanak.

Urena laisterkarako belbil edo automobilak zerdala-ta auretik buru-aundi ta atzetik atze-me izaten diran galdetu zion.

Arotzak aizearen eragozpena gutxitzeako zala erantzun zion. Jaboi-puska listari batekin lotuta ur aundian beti ibilian ibilita antza ori bera artzen omen du. Argizai-puskari aize berozko aize-estatea egiten ba-zaio, buru-aundi ta atze-me gelditzen dala orobat. Ta urtantoak beeraka datoza itxura oretan bertan erortzen dirala.

Fletner-ontzia dala-ta, Magnus-eragiña deritziona zer dan ere adierazi zion.

Ta gure irakurlea arlo gaitz auekin buru-aundi atera ez dedin, ez goaz geiago esatera.

Idazkariak ez zuan itzik ere atera.

«Garatxa»-k bi azkazal zeuzkan moztugabeak goizean aztuta.

Ura bai buru-aundi.

XVI

A R O T Z A R E N I D A Z K I A

Ene amatxo` maitea : Sinist egidazu, zein egunetan bizi naizen jakiteko izugarízko buru-austeak darabilzkit. Egunguztiak berdintsu dijoazkit eta oñez gañera egutegirik iñon ikusten ez. Idazkia asteak, bada, lanak ematen dizkit; zein egunetan iritxi, uñengoan zer egin ta, uñenaren uñen nabilela, beatzak bai ta ez, noizbait asmatzen dut, edo uste beintzat.

Astia gogotik ba'daukat eta luzaro idatzi nezaizuket. Lengoan ez nizun esan Ibaiotz-ko geltokian iru ordu egon bear izan nuala zai —bosterdiak arte— alik eta emen deitzen dioten «Pidel-en tañanta» etorri arte. Ta eskerak astelena ta etortzea ba'zuala, ez bai-dabil egunero ibili-ezin ori. Geltokiko lenenburuaren lantegian egon nintzan zai ta antxen nengoala orain bost urte nerekin soldaduzkan egondako langile bat sartu zan. Ni ez nintzan beratzaz gogoratzen; bera nitzaz, bai. Ta berak orduko gertaerak gogo betez esan bitartean, ta lenenburuak nere jantziari zearka begira bitartean, nik ezagun gabeko toki aren jaun eta jabe egiten nion nere buruari. Gaitz erdi, nere iru orduak arin xamar joan ziran. Aratsalde guztian zapañada galanta bota zuan ta otza ere ba'zan. Eskerak nere soñeko lodiari.

Noizbait «Pidel-en tañanta» azaldu zan ta aulki zikin baten gañean ia zilipurdika ere egin nuan. Jetxi berian mugazai batek zein «paper» ote nituan galderetut zidan ta erakusteko eta bereala iñon diran galderak egiten asi zitzaidan. Orain kalean ikusi baño len agur egiten dit.

Urena —aritu zaitez— Bedoya-n Antonio zalako bat ezagutu genuana ementxe ikusi nuan: jardule amoñatua, gogoratuko zera, bizikletaren gañean maiz ikusten genuana. ¡Non-naitik azaltzen zaizkit «lagunak» neril!.

Auxe zan, bada, esan gabe utzitakoa.

Orain goizeko bederatzietan idazten ari nozu. Nai ta nai-ez goiz oeratu ta goiz jeiki-beaŕa izaten da emen. Goizean egun-argia gelan sartu ta lo egiterik ez; ez nik beintzat zuk dakizunez. Orez gañera kaleko olo-karkarak, kaŕaxi ta jardunak nabari-nabari dira, ezur-giltzakin kupel utsa jota bezelatsu.

Atzo eguardi-arteau Martin deitzen dioten mutil on-on batekin egon nintzaizun arantzan zubi-ondoan. Bai barbotan ta bai emen «txipak» izeneko aŕai txiki- etan, beŕogei baño geiago atera nituan kanabel motx batekin. Martin ere ez zan makal aritu ta bereak eta nereak eŕiko zilargiñari eman genizkion, ez bide du egunero oŕelako aparirik. Ene ustez aŕaiak uretan igari egitetik ardotan igari egitera aldatu ziran.

Idazki au bukatuta gozalduko dut eta urena espartzin zuriak erosi ta ba'noakizu pelota-plazara. Ba'dut pala, ba'ditut pelotak; ene esku txepelak ez dira geiagoko. Bigar Letxa-ra joango naiz joan-etorian. Usauri baño txikiagoa, baño polita omen da. Eŕiko idazkariak urutikuskiñak utzi dizkit.

Ez neri euritakorik bidali. Egualdia onduaŕen, ez dut euritakoaren bearik. Ari ba-du, bertan egon, naiz euritakoa izan; ez dut iñora joaterik, ez or bezela eguneroko bearétara joan bear dutanean.

Emengo eŕetore jauna ta oskailaria, «Gaŕatxa» izengoitz esaten diotena, adiskide audiak ditut. Nonbait «Gaŕatxa»-k eztularako gaŕatx edo pastila on batzuk asmatu —berak ala uste beintzat— ta orduztik

«Gaŕatxa» gaitzizena jaŕi zioten. Oso nere aldekoa dut «Gaŕatxa» gizon au eta Fisika ta Kimika-ko gure jardunen berí bazeneki ez zenuke oŕenbeste bider aipatuko nere ikasketaen dirua (edo bear ba-da geiago).

Oso pozik nago emen. Ene buru gaxoa sendatu zait eta berau aŕika egingo ba-lidateke ere ez dut uste min aundirik egingo nindutekenik. Auxe da nik bear nuan atsedena. Nere lengo lorik egin-eza oso urúndu zait eta, aŕitu zaitez, bazkalondoz zenbaitetan ere egiten dut. Nere soin guztia sasoiez dago. Ez ba', amatxo, nere osasunaz kezkatu.

Emengo eritarek Bedoya-n bezelako izketa soñularia dutela aztuta nengoan esatea. Askotan beren arfean ari dira : «¿quieres chochos?», «¿tomates tienes?». Eta mutil koskoŕak esaten didate neri : «¿hoy no va a pintar?», betiko soñuarekin. Baño nik euskeraz erantzuten diotet eta geroztik beti euskeraz aritzen gera.

Egia diozu zu bezelako amatxo onik ez dala munduan. Nere zoŕoto politan sartu zenizkidan xigaroak ezin goxoagoak dira. Eskeŕak demazkitzut biotzetik; emen nai dana eroskeko ez da aukerarik.

Eta gaurkoz aski ta bukatu dut. Ondo-ondo egon, ene amatxo maitea. Mun dematzut eskuau.

LEANDER.

XVII

ZUBITO BATEN GAÑEAN.-ITZA, PITSA

Arotza txipetan aritzen zaneko zubi-gañean, berek uste ez zutela, Martin-ek eta Mirele-k alkařekin topo egin zuten : bat onuntzean, bestea aruntz. ¡Nork ote zekian zerk eraman zituan biak alde berberera! Goiza goibel zegoan, otoi beltzak beraño jetxita mendi-koskořek uratzen zituzten, tarteka, arkaitz eta zugatz arteetan, tximak eta mataza zuriak utzirik. Ibaia bera ere ilun ta zotinka zetořen.

Albait nik esango nuke zertxok zerabilzkian bakartsu bi gazteak. Batzuetan maitaleek atsege egoteko gogoa izan oi dute, batzuetan zertaz asařetu izan ez ta aitzakirik pitiñena goitiluntzen ditu. Ba'dirudi maitasuna negařez obeto asetzen dala; orduan, nonbait, maitasuna lařiago nabaritu eta ba'dira maite-miňaz biotza aunditura atsegin izaten dutenak. Edo ori dala esan diteke geroko adiskidetzea eztia dalako. Baño danetara ere, orain gogoratzen gerala, ortatik ezin diteke atera biak alkarganatzeko zertxoa, zerbait alderatu lezazkikelarik; alegia maite-mindunek naiago izaten dutela bakartsu ibiltzea; besteen jardun ta eleketak nastutzen bai-die beren irutegi goxoa.

Eta ora-ba', biek min berarekin alde batera jo bear, biak bide berari lotu eta bideak joateko bezin ongi etortzeko izan oi dira.

Baño bakařik ibiltzera beartu ez balu ere, aize-beařak Mirele gaxoa eraman zuan atariari aldez beste egitera. Bada zubitoaren erdian bezelaxe arkitu ziran neškak esan zion mutilari :

—Eskeřak demazkitzut gaxorik nengoanean bidali zenizkidan gorantziakatik.

Ta ala zan, bada gaizki egonaren zurikail ta auldua zegoan. Itzak berak ere nekez nabari zitzazkion. Martin oso erukitu zan; Mirele-ri, ordea, arpegia zertxobait alaitu zitzaion, naiz lotału txuria buru-gañetik lotuta mutilari ikusi, ain onik zegoala igafita bere iduri ona azaldu zitzaion.

Ora-ba' gertatukoaren azalpena, Martin-ek burua ametsetan, begiak mamuetan ta biotza eztarían zeuzkanean, Mirele ere... gaxorik oean; ora-ba' Martin-en estutasunak. Lera bat artzen dugunean zorotzak izan oi gera beahesten. Baño Usauri-ko gazteak Elizondo-ko neskaren txarki egona jakinda, beltzura aienatu ta Margarite-rekin gorantzi beroak bidali zizkion. Eta orain ala zion :

— Ez duzu zer eman, enetxoa. Nezakean gutxiena egin nizun. Baldin ni zure sendalaria ba-nintzaizun, baldin nolanai zure etxeraño joatea izan banu, baldin nere itzek nolabait atsegindu ba-zintzaiketean, nik uraxe bera egingo nizunene aal guztiz. Baño, tira, orain ondotxo zagokit, enea, ez nik nai bezin ongi, ja zein luzea izan zaidan zu ez ikustea! ¡Ba'nuan zu ikusteko gogoat! Nere begiek nai ainbeste, ikusiko al zaitut aurerakoan?

Martin-en itz gartsuek kezkatu-asia zeukaten Mirele. Ez berak nai, ordea; orenbesterañoko kutunkieriek gaizkitu lezatekean neskaren aulkeria eta soña edo gorputza astindu egiten da gaitz lezaiokearen auréan. Bere aldetik galdezu zion :

— Artean zu ere gaxorik zeunden. ¿Txoil sendatu ziñan? Edo-ta, lotału dakuskizutanez oraindik miñik ote duzu?

Baldin Martin neskaen arazoetan zerbait ikasia izan ba-zan, galdera oíeri aíeta geiago jaíko zion eta zerbait oartzekotan poztu egingo zan alako jakin-

-naiaz. Orenbesterarenoko gurekoarak izaten gera geren naietan; orok zurikatzen gaitu gure alderako ba-da. Baño neskaren jakiteko ardura agirian baldin bazegoan eta ardura oretatik beronen gaxotasunaz zerbaiz atxitu ba-zezakean ere, ez zitzaion ezere bururatu gure mutilari. Eta galderari «ni ederki nago, xatar auek aurki botako ditut» erantzunda galdetuzion berekiko :

—¿Eta zuk zer gaitz izan duzu? ¿Noiz gaizkitu ziñan?

Eta Mirele-k zionez berak uste ez zuala alako batean ongi egon-ezaren naigabea etorri zitzaion, jateko gogoa agitz aldendu eta oeratu-beaŕa izan zuan zankoen gañean gauza ez zalako. Zer izan zuan berak ere ez omen zekian. Iñon oñazerik ez; oean egon beaŕa, oŕa. Baño ez zion esan noiz gaizkitu zan, alegia Martin-en miñaren bería jakin zuanean gaxotəsuna asi zitzaiola. Bera gaztea ta biotz ikutukoŕa izaki; eskaratzako alkaŕekin egonak geiago bigundu ta bere lagunaren zoritxaŕak atzenez garaitu. Ezta ere ez zion aipatu sendalariak esana : gogo txaŕekoren bat jakin eta makaldu ez ote zuan, baño geldi-aldia on lizaiokela, aal zezakean geiena jan eta bestelako osagairik ez. Mirele-ri ba’zebilkion buruan eŕiko neskaren batek bi gertatu oriek ariztatuko ez ote zituan.

¡Ta mutila pikotan!

Odeiek gorako bide zabala artu zuten. Eguzkiak odoi tarteetatik izpi beroak bidaltzen zituan. Ibaiko ura oraintxe berdaxka azaldu. Mendiak osoak ikusi. Mirele-ren arpegia eguzkitan bizitu.

Alkaŕekin zeudenez geroz ez zan iñor baztar artatik azaldu ta ikustekoa zan ibai-gañeko zubiaren erdian zegoan biko maitagarria. Mirele-k iñoz baño luzaro irauten zuan Ussuri-n aurten ta onetxek laŕi aundia

ematen zion Martin-i. Berak lotu egingo zuan alkařen adiskidetasuna, Elizondo-ra joateak igaz bezela autsi ez zezaion. Egiazki, azken-urtea bat, oraingoa bestea.

—¿Noiz zoazi Elizondo-ra, Mirele?—galdetu zion.

—Onezkerro an bear nuan; baño aita etorita egun batzuk oraindik egon nitekeala esan dit, ondo sendatu nadin. Aurki nere bila etoriko omen da; ba'dakizu, bada. ¿Ni joateko zai ote?

Galdera ofekin Martin-en gogoa neurtu nai izan zuan. Ta onek bat-batean.

—Ez alakorik egun —erantzun zion—. Eta baldin zuk nerea bezelako gogoa bazendu —ez nik añaakoa—, edo-ta, gaur azteazkenez gaudelarik, igandean pizkorago bazeunde, eta zure aitak ordurako eramango ez bazindu... ¿nai al zenuke áratsu-dean biok Usategira joatea?— bein-edo-bein bukatu zuan.

Martin ezezkoaren zai zegoan; baño aritu zan.

—¿Ain uruti? —erantzun zion.

Biak bakařik ibiltzea eragozpenik ez ba-zitzaison urutikako arazo ori eŕeza izango zitzaison leguntzea.

—Nik Usategira esan dizut —gañeratu zion— an toki polita dugulako, Usategiko beria zuri emateagatik ez dakizulakoan; baño araño iristen ez ba-gera ere, nai duzun tokian gelditu edo atzera etori. Nik ba'daukat ustea igandea zure Usauri-ko azken-eguna izango dala aurtengoz eta ba'daukat gogoa zure lagunik adiskideena ni naizela erakusteko...

Ta Mirele-k baietz esanda zubitoa poliki utzi ta etxe-artera abiatu ziran Martin-en ikaragarizko pozarekin.

Ta onuntzean zetozela etxeko atze-aldeko leiotik Josune begira zegokien...

Enparantzari ateak zabaltzen zizkion eskaratz

lasaien —«Tukulu»-eneko berbera— arotza gogotik ari zan jardun gozo ta alsegiañean beste neska zenbai-tzuen erdian. Itza oparo zetorkion, jostagañizko itza —gizoneri batzuetan gerta oi zaien bezela; bere itzaldi eraz eta ugariak txoraturik zeuzkan inguruko neska-txak. Ogei urtetik gora ez zan bat ere. Mutila burutsua ta olde onekoa. Itzetik ortzera guztiak menderatzen zituan. Galde batek eta galde besteak arotza lañitu nai ba-zuten alperikako lana. Erantzuna egoki-egoki eman eta geienetan zer pañ-egin gerta oi zan. Ta baldin arotzak ikusgarí egon nai ez-ta, bizkará eskaratz bafengo ormari erantziko ez balio, zinta-dantzan ari zirala esango genuke: mutila zutik erdian eta neskak biraka zintari elduta. Mutilak buruan usorik ez ote zuan.

Batetik, arotza; erietan arotzek aal aundia izaten dute bertako neskaekin. Geienetan bertako mutilak zakar edo asto xamar izaten dira eriko neskaekin. Baldin arotzak xamurtasun fanfoa ba-darabilki, bereala bereganatzen ditu. Emakumeak munduko luñalde guzietan legunkeriz goxatzea nai izaten du, naiz «no» «to» izan ta oloa olar.

Bestetik arotza ederki jantzita ibiltzen zan ta arpegian ezagun zuan uri aundiko bizibide onadun jendearekin oitura zegoala. Arpegiko ta jantziko dizdizak emakumeak nola itxutzen dituan ba'dakigu, ta ez da aritzekoaren ituriaren ondoan eguzkiari zalapartaka aritzen zaizkion txorien gisan asaldatuta egotea.

Orez gañera, apaizarekin ikusi zuten; beraz, mutil ona zan. Itza yayoa, garbia ta ugaria. Ugari onek ez ditu gaizki atzematen neskak, naiz-eta ugaria ugaría. Ugaríarekin txoria, ugariarekin txoroa.

Ta, ari zirala, arotzak zion askotan norbaiten izena jakin ez ta —oargaría izan ba-zaigu beintzat—

aretaz bein-edo-bein jardun beaŕean, guk zer oartu diogun alako izena jartzea. Bestetan zereko ondoan arkitu ba-dugu, «zereko mutila» edo «leioko neska» esan oi dugu. Batzuetan izena jakiñagatik, naiago, dugu esan «onako alaba» dala bere izenez aipatzea baño. Oargariagoa zaigu bat-edo-bat berbera dalako baño «alakoren anaia» dalako. Zenbaitzuk besteek baitutako bizitzarekin bizi dira.

—Baño ene ustez —zeŕaikion paŕez—neskak gaitzienak jartzen emanagoak dira : «kankalua ikusi diñagu», «piper-pofo etori zaigun», eta abar. Eta nik ikusi izan ditut ezkongaietan neskak «urde» ta onen antzeko legunkeriak mutilarengatik zerizkiotenak gero senaŕ-emaztetuta. Nere iritzirako auxe-edo gertatzen da : edo neskak beren aburuetan oso aldakorak dira ala aldez besteko zaleak dira, edo-ta, zer uste ura ukatu.

«Esanak esanagatik, ordea —zion oraindik— nik ederki dakit Ussuri-ko neskatxak (Bitorene-ri begira), Donibane-koak (Ester-eri) eta Elizondo-koak (Margarite neska koskoŕari) ez dirala izen itxusi-zaleak eta nere izenik ez dakizutenez geroz —nik ala uste beintzat— ȝjakin al nezake zein eratara narabilkizuten? —iria ezpañetan galdetu zien.

—«Oi, aŕotza», batek; «aŕotza», besteak, eta «aŕotza» guztiekin. Ez, bat ezik. Margarite txikia ixil-ixilik zegoan. Bat-batean iri-karkara gozoa aterazuan. Guztiekin ere par egin zuten pozik. Ta galdetzen zioten bakoitzean irikarkara berria. Ezin iñola ere baŕenen zeukana mingañeratu, naiz gero ta naiago jakin izan. «Baldin badite esango dun», zirikatzen zuten. Ta ba'dakigu, azkenez, «txipetara joaten dana» deitzen ziola Mirele-ren aŕebatxo alaiak.

Orduan neskaek galdetu zioten ea berak zein izen

beríz ezagutzen zituan berarekin zeudenak. Oíri beroien izen jatorák ederki zekizkiela ta alako gazte baten izena ez ba-zekian ere, neska polita ala ere, bein-beingoz ikusten zuan ta ezin ba' arenik esan.

Neskak bere aldiko zuan baño izen itxusiagorik ez ziola jaíko ta ofetaz ez ziola kezkarik emango.— «Danetara ere —árotzak orduan— izena bat, izana bestea. Izana erakaí-indar aundikoa da. Politia izateak izen itxusiak edertu egiten ditu. Denboraz politak dirudite neska politen izen itxusiak. Eta berek ikutzen duten guztiak ere bai. Edozein soñeko beñiak orobat. Neska politari asaferzeak ere eder demaio. Ta oíetxengatik uste dut zure izena polita irudituko zaitala, baldin zuk diozunez itxusia ba-da ere».

Zurikeri auekin mutil gazteak pozik zeukan bere artaldetxoa. Ta Margarite txikiari zerbait esan naiean, oíra zer ofu zitzaion.

—Ona ba' beste adibidea; lengoan Margarite zuringin bat jaten ikusi nuan. Ta nonbait goxoa zitzaion, sudur-kokotzak zuri-zuri zeuskala par zegian...

—Ori ez da egia —Margarite-k— nik ez nuan ez sudurik ez kokotzik zikindu.

—Nik ez dut esan «zikindu», «zuritu» baizik. ¿Zikintzea al da ba'? Ta adibidez esan nai nuana auxean : ala ere Margarite txoragaría zegoala; artean, poliki emango al luke neska itxusi ta tximaduna izatekotan?

Onen antzeko izketakin gozoro igaro zuten eguardi-arte ura. Baiki, aundienetako bat-edo-bestek ez lioke egun artako bazkariari aíreta aundirik egingo. Árotzarenaganako begikotasun bizia sortu zitzaien. Ordea, árotzak ez zuan aufuetan aritzeko asmorik. Ondotxo zekian bere inguruko beñi ta axalapañetan ari.

XVIII

P A T A R I A K

Neska-mutilak kanpoan, ikastetxean sartuko litzaken basurdearen gisa, Irún-go Katamotza Ondazulo-ko baztar ilunak miatu ta azterkatzen ari zan; begietan sua, sudurretan aize sendoa ta oñak luñari azka. Baño bai garai okeŕeko etortzea egin zualako, edo besteek uste baño len asiera eman ziotelako, ala nolanai, berak ausnar egiten zituan alkoolak, sedak eta ontziak ia ordubetez lenago mendian gora abiatu ziran.

Ordukoak, beintzak, kale egin zion. Paulino-rekin izandako boókaz geroztik ainbat bider uts egiña, noski. Leize-zulotik ilunabaŕeko argitara atera zan ta joan zan.

Alderdi artan muga mendi-gaňetik doa ainbat bidean. España-aldeko mugazaiak muga-leŕa berean egon oi dira, edo-ta, mendiaren gain-gaňean. Ordea, Prantzi-aldekoek muga-leŕa goien utzi, mendi-egala bego ta beko eroso-egona naiago.

Ondazulo Prantzi-aldekoa da. An egon bear zuten, eraman ez ba-zituzten, alkoola, seda, ontziak eta abar. Norbaitek araňo ekaŕi ta ostendu zituan, andik besteak etorí ta mendiari aldez beste egiteko.

Lenengo aldapa ura oso gaitza zan.

—Orain gauden emen, Goiz dugu. Zeru-zola urdin dago oraindik eta alik-eta beztu arte emen egon beará besterik ez. Garaiz aurétiik etorí gera; baño emengo geldik-egonak ez digu kalte aundirik egingo, batez ere aldapa likitz au igota nekatu xamaŕak gaudela.

«Emendik ez da onuzkero iñor igaroko, baldin ardotegian busti-busti egin ta «berant-etxea»-ren bat

urka-tokira joan beárean etxe-bideratzen ez ba-da. Ta berak bere begi aundiekin piztizaŕak ikusten bagaitu, guk putretzat artuko dugu bera. Ordea, baseritarr moskor batek obeto ikusten du gau-erdi ilunean esku-utsik guk lastabalarekin baño.

«Eta jaŕai neri. Uŕengo txandan bide guztia egingo dugu. Ta gauden emen abiatu bitartean».

Onela itzegin zuana Juanxo zan. Bigaŕena, Antonio:

—Ta emen gaude orain iru gizon bilduŕez bagunde bezela, bide baztafeko txoko batean. Bildur itxura oŕek oso asaŕetzen nau, nik ez dut «sekulan» bilduŕik izan. ¿Zergatik esandako garaian etoŕi ez? Orain bean egongo giñan, geren zamak artu ta geroxeago garai jatorreko atsedena genuke. Garaiz auŕeko egon-egoteak amoŕazten naute. Ta au ez da guk esandako ordua. Guk bean bear genuke oraindik. Ta aldez besteko tokian alperik egoteak sumintzen nau. Ez dut uste zuekin befiro etoŕiko naizenik.

«Ta pixka bat geixeago edanda moskortzeagatik ez dut uste iñor urkatu bear lutekenik. Askotan ez da eŕaz gorputzak zer bear duan neuría ematen; gutxikeriz baño geiegikizeriz obe. Oretara ik, nik eta ixilik dagoan oŕek baso bat ez genuke naikoa bakoitzaŕak arboletan, edanaldi bateko tokiz aldatuko baginduzkete. Ta oni pakean utzita, zalantzan natxiok, i edan ondoren eztaría beñere itxitzen ez zaikan ori, gu biok ire oñetatik zintzilik jaŕita itoko ote itzaken. Soka lenago autsi ire lepoa baño».

Auek guztiak esanda biak len bezin bare gelditu ziran. Juanxo-ri ez zion ajolik Antonio-ren esanakatik eta Antonio berari ere ez, naiz olde gaiztoko aritu. Ura utsa zan alkaŕekin ibili bear zitzuzten ariskoен aldean. Gero ere ba’zuten naiko beta beren arteko

gora-berak berdintzeko. Agidanean eginkizun artan alkaréen beaŕa izango zuten ta ez da ukatzekoa idekoaren laguntza. Danetara ere, nai zutenean asaŕetzen zan jendea zan; itzak gora-bera ajola gutxi nai ez ba-zuten.

Irurak, kabian bezela, osto-adar ta belaŕez ingurutako uskune batean exerita zeuden, zamak bizkaŕetik atzerabeituta, belaun-koskoŕak eŕenkadan. Bustiñez loitutako amantar aiekin, makilak aldean, Santa Cruz-en mutiňak esan zitekean, baldin zilargiňari (auxe zan irugaŕena) oar egingo ez bagenio eta, batez ere, gisa onetan itnegiten ez eztzutekotan :

—Nere bizitzan Vichy-ura geien edan dutanean, ez ote zait neru «eŕeuma» etorí? Ezkeréko beso au bizkaŕetik asita beatz mutuŕetaraño elbaŕitua daukat. Orain sinisten dut, ardoa ezik, zerbait geiago ba’ dutala gorputzan. Lengo batean, eŕitik at nintzala, nere eskolako adiskide aberats batekin bazkaltzen «artzeko» ta «artzeko» ta Vichy dalako ur ortatik bota ta pitin bat naikoa izan zan aren ardo ederá bat-bafean ondatzeko. Ta geroztik ez dut gauza onik izan. Gero ta okeŕago dagokit ene besoa. Ta bear bezelako aŕeta egin ba-nion ez nintzake ni ere emen, noski. Osasuna bat eta zakurkerian ibiltzea bestea. Nik lan ez egiteko tan aski dut lasai edatea, ta aragi-xeŕa baten gora-beragatik ez noake ni ariskoan ibiltzea. Naiz langile txára ni erlojero ona naiz, zuek baño askoz geiago dakitenek esanda. Ta ariskoa Usauri-n bertan izango banu aldegin eta nonnai nuke nik nere ogibidea, ez zuek bezela. Ta batez ere ni lapuŕetarako ez nazute jaioa».

Esan ba-zuan esan zuan, Juantxo ta Antonio sumindu zitzazkion. Biak bakaŕik izan ba-ziran naiago zuten. ¿Zer ikusteko ote zeuden arekin? Anto-

nio batez ere, odola irakiten, ezpañak estututa, begietatik txinpartak botatzen zizkion. Ta Juantxo, lapuréta ba-zan ez ba-zan—egiñalean—zer on ta zer gaitz, zer zuzen ta zer oker, zer bidezko ta zer bidegabe, itzen zer-esanen mugaetan akika ari zan bitartean, Antonio-k batere jaramonik egin gabe onela bota zion:

—Ik lapuritarako gaia obea daukak erlojerotzako baño. Ta lapuráta erlojerua baño moskoña obeto. I ez itzakek Ussuri-tik joango ezta kartzelako atea aztuta zabalik utziko balitekek ere.

Antonio-k matsondo zilargiñari. Zozoak *fascista* (ator beltz) beleari. Uzkudun-ek zeり Otxoa-ri.

Zilargiña jango zuten. Ordurarte ez zan esandakoaz konturatu. Ta, mugazaiak atzetik, lagunen aterpera joango litzaken bezin txuxen, oraintxe, lagunengandik igesi, mugazaien babesera zanko-jokoa egingo luke. Bi aien gorotoak, batez ere Antonio-renak, itz-bidea asmatu zuan ta lekoratzeko ukabilek lagun egiten zietela, iñon diran gordinkeri ta asafe-itzak esan zizkioten.

Zulo artan sartuta «lagun» aiekin eta garai artan (ilundu zuan doi-doi), zilargiñak ez zuan beste irten-biderik bere besoa aipatzea baizik. Gaitzak on egiten zion. Alegia biak berak alako beso-miña izan ba-zuten; Antonio-k gutxiagorekin esan zuala ez etortzea; bera «eŕeuma»-rekin ta ea besteak añako zama eraman bear ote zuan; gorputza ongi izan ba-zuan ez zuala iñoren bearik edozertarako, ta lapurák ez baño mugazaiak atzetik ibiliko zituzten-eta...

Zilargiñaren ziñak eta miñakatik, ez zioten itzik esan zama arintzeaz (arek ori nai); oŕez gañera jardun gogoŕa zerabilkioen ta baŕena ustuta zilargiña ardi zaŕa baño apalago ikusten zutela, bareago aritu zi-tzaizkion, azkenez, Vichy-uraren buruz, goxoa biurtu

zuten bost beatzean : areri gertatu zitzaina ikustea
besterik ez.

Baño onetan ilunpeak aŕapatu zituan; garaiaz
gañera odoi beltzek gaua auŕeratu zuten. Juantxo-k
alkooldun gurpila jasota lepaezuŕean jaŕi zuan, ugala
kopetari lotu ta kopetaren auŕean, ugalaren atzetik,
buruko txapela tolestuta sartu zuan taranean. Onek
«goazemazute» esanda zutitu ziran. Beste biak mendi-
-zoroak besarpetik sartu, makilak artu ta zilargiñaren
«ai»-akatik, oin-azpiari aŕeta eginda, belar-tartetik
atera ta gorako bidexka gaitza artu zuten.

XIX

ANTON BAT ETA ANTON BI

Auŕena Juantxo, uŕena Antonio ta azkena zilargiña, irurak luŕera begira, ozta-ozta ikusten zutela, ixilik zijoazen : batetik lendik naiko itzegiñak eta bestetik abo-zulotik ere indarā joaten dala.

Gizon sendo batek atsegin izaten du mendian dabilenean zamaren bat eramatea, batez ere ondo lotu ta eutsita baldin ba-darama, ez dezaiola iñongo koskoik erakutsi. Oŕez gaňera makil berarizko bat baldin ba-darabilki, besoari zeregiña emateko eran, gazte indardunak gogoz artuko duan ibilaldia izango du. Ta nik uste atsegīnagoa dala gisa oŕetara soin guztiak ekiten diolako, ez zankoekin bakaŕik. Baño aitortu bear dan gauza da aldapa erpiñetan asierako asmo ibilkorák bereala aitu ta atsegīnā gaitzagiña biurtu. Zankoek aldapako nekeari ta bizkaŕeko beerakoari eutsi bear izaten diote; oŕetara, aspoak lan-eta-lan, aunatu egiten da ibilkaria.

Onelaxe iritxi ziran len aipatutako atseden-tokira. Ta naiz egonaldia luzetxoa izan, aguro beritu zi-tzaizkien lengo miňak. Irurak, beraz, ba'zijoazen gora ta gora nekatu samaŕak. Zilargiñaren musinkak ez zituan iñork ikusten. Juantxo sugearen burua zan, Antonio gería ta zilargiña isatsa. Bira bakoitzean lenengoz Juantxo asten zan ta azkenez zilargiña, noski. Buruzagiak zankoa altxa, makiłari eutsi ta aupa egiten ba-zuan, beste biak ari bera iruten zuten. Artean arnasak eta oin-otsak bakaŕik itzegiten zuten.

Arian-arian, zugatz, aŕi koskor ta sasi tarteetatik, mendia menderatu ta gaňa azpiratu zuten. Une onetan,

Juantxo nora jo ez zekiala, bat-batean geratu zan. Antonio, beti auéra, kokotzarekin jo zuan aurékoia marmarizoka. Ta berak egindako atzerakarekin, uíena ziñargiñak eman zion ordaña itxuan zetorela. Utsagatik ez zuten iskanbilা jaři. Ordea Juantxo-k eskubira jo ta besteak aren atzetik.

Garai artan doi-doi zan oartzekoa toki ura; baño egunez toki zelai zabala ikusten zan. Goiko aize otzak, ango ixiltasunak, bertako aunditasunak, oriek guztiekin bakartu egiten dute dabilena, naiz-eta lagunen artean joan. Oi-ezak eráz izango luke mendi-miñā alako toki ikaragařian. Zugatz bakařa ezik bilutsik zegoan zabal ura. Ta auzko zugatz ura ere makurtuta, buruak ia luřa jotzen zualarik. Europa-ko geřateko danbagiñak ařastaka ibili ta berdindutako lekua zala izan zitekean. Arako arkaitz aiek, beríz, isua ematen zuten biotzean. Árese olerkariaren irudimenez arkaitz biurtutako zantzoak.

Gure taldea zegoaneko aldamenean ardi-babaz jositako tokia izaten zan. Ordea, gau ilunean ez dira oartzekoak ikuskizun auek eta Juantxo-k, zerbait jakiña, agiria utzi ta garo zalapartako bidea artu zuan bere lagunekin.

Tanto me-meak arpegian jotzen asi zitzaizkien ta baten-batek «euria dugu» esanda, irureri bururatu zitzaien —baldin ziñargiňa bere buruaren jabe zijoala esatekoa ba-da— mugazaiak aterpean egoteko aňa euria egingo ote zuan, beren jantziak eta, batez ere, zořo-bařenean zeramazkitenak ez-ondatu ainbeste.

Garo auńdia zapalduz mutuřera iritxi ta beerakoa zuten. Jetxi-ala gaztañondo pilo luzea agiri zan. Naiz-eta azpitik zijoan bidea gurdi-bidea izan, ordea ez zan ain agiria, gaztañondoak zirala-ta, eta emendik jo zuten buruak ostentzen zituztela.

Urrena mendian gora asi ziran beriz ta bidez kanpotik zijoazela, euria orduantxe geituta, zugatz eder baten oñari inguratu zitzaizkion belardi baten erdian, zilargiña barea baño motelago. Toki arek Endarlatza-koarekin zerbaiten antza ba'zeukan. Norbait edo norbaitzuk su-iskiluz il bear dituztenean, ba' dirudi alako zugatz bakaŕeko tokiak egokiak dirala, il bear dutenen ezúrak abar ostoek babestu ditzaten.

Eta an bertan zilargiña itoko ez ote zuten ez dakigu; baño ostera, gero ta lariago, aioska asi zitzaienean, asmo gogoŕak artzeko ez ote zebiltzan uste izatekoa zan.

Zilargiňak ezetz eta ezetz, ez zuala zama arekin jaŕaituko, ezin zuala geiago, miña gero ta jasangai-tzagoa zitzaiola ta an egongo zala bear ba-zan gau guztian euritan.

Iñon diran irain eta zemaiak botata gero, naiko gutxietsi ta ezetsita, Antonio azaldu zan gizon: bota zitzala bere zoŕora nai zituan guztiak, ez zala bera zilargiña bezelako «erdipurdiko gaztea», «baezpako gizasemea», «lotsik ez duan gizona». Zilargiňari ajola gutxi; bai pozik, ordea, bizkaŕa lasaitzearekin; erdiak eta geiago pasako zizkion. Ta bota zizkion bere ajola gutxiak laketu zion artean: Ta Antonio-ren zoŕoa aunditzen zan araberan, zilargiňarena gutxitu. Antonio ez zan bein esanda itza jaten duan gizona. Ta zilargiña makurtuta ari zan bitartean, bera zutik ezpaňak itxita.

Aldaketa egin ondoren, zerbait geiago egon ziran zugatzaren azpian, biak zilargiňari eŕietan, ta euria txirtxildu ta geldiro zetorela, ibiltzeari ekin zioten. Banakatu ziranean eŕaz igaŕi zitekean Antonio-ren zama zein zan. Ba'zirudian ganbelu aundi baten bi konkor aundiak bat eginda zeramazkiala.

Gańa arápatuz geroz auŕeko goiari oarka jaŕi

zitzaitzkon, buruak ondo gordeta. Muga-leŕa andixe zijoan. Bat emen, bestea an, tarteka mugazaien txabolak zeuden jaŕiak. Ta txabolatik txabolara, bai egunez, bai gauez, ibilialdiak egiten zituzten mugazai-ek, bakoitzak bère aldeko artara. Txabolekin, beraz, bideek itxitzen zituan katea zegoan. Aietako bien tartean igaro bear zuten gure patariet.

Ajol aundia zien mugazaia batetik bestera ibili edo txabol-baŕenean egoteak. Juantxo-k ixiltzeko keñua egiten zion Antonio-ri beatza suduraren auréan luza-tuta. Andik auréra ixilik eta oñetako takatekorik gabe ibili bear omen zuten. Gaua beltz-beltza. Ez mugazai-rik, ez txabolik, ezin zuten somatu. Muga-leŕari ondoratzea erabaki zuten. Lenengoz ezkeŕera jetxiko ziran ta gero eskubira igo, ibil-bide uraxe zan ezku-tuena. Leŕaren ondora iritxita, geldi mugazaia zebilen ez ote zebilen.

Ta bein txabolan zegoala usteta, leŕak daukan tokirik txigor ta meaŕenari aldez beste egin. Orez gañera alderdi artan beerakoa bereala zegoan.

Juantxo-ren aburuari ezin akatzik jaŕi. Iñork ez zuan uste oberik azaltzea. Esanak esan eta abiatu ziran, bada, asmatu bezela. Orduan konturatu ziran ongi zein zaŕa zan lagunen artean ain eráza ematen zuan egiteko ura. Ezta itzik ere, Antonio-ren susmu-ŕuren bat ez ba-zan. Aŕia jo, eskuak uŕatu, ezta kinkik ere. Euriak ez zien gogaiteragiten; iluntasuna naiago.

Beeraño iritxi ta gorakoa artu zuten : Juantxo lenbizi, Antonio ta zilargiña, beti bezela. Aldapagorak astiro joatera beartu zituan; bestela ere ez zan laisterka aritzeko une egokia. Iru patariak ba'zijoazen neuriz baztar guztiak oarturik. Juantxo-k adierazi zien arako sasiaren atzean makurtuta egoteko, zugazpetan ibilita gero.

Noizbait iritxi ziran ta geldi. Juantxo-k poliki oartu zien :

—Orain gauden emen txolarte batean atsedena artu arte. Eta bitarte ofetan igarí dezaiogun mugazaia ba'ote dabilen. Egon alik-efa ondo-ondo jakin arte eta zuek albait zuen zoñoak ez bustitzeko eran sartu bañenago.

—Nerea ondo bustita dago beintzat eta Antonio-ren zoñoa danaren aundia dala —zilargin ajolagabeak zion— ez dut ikusten, suduraren kankaña uratzen didalarik. Mugazaiaik baño sasipetik basakaturen bat atera liteken usteak bildur geiago ematen dit.

Antonio-k ezin eramanik, ostikoz jo zuan zilargiña iztaáean ta oneri irten naiean zebilkiona ots txiki batekin atera zitzaion atze-aldetik. Zilargiñiak eskua aboan jarí zuan par egiteko; obe izango zuan, ordea, pixka bat lentxeago eskua tokiz aldatu ba-zuan.

Juantxo ta Antonio ernai zeuden alde guztietara begira sasi-gañetik doi-doi burua agertuz. Zilargiñari etzanda egoteko gogoa etorí zitzaion ta zamaz arinduta izketarako gaitu zanez geroz, orain ere an ari zan ortzaz gora :

— Nik, baiki, ez dut ezer ikusten, ezertxo ere. Baño ez dut uste onelako egualdiarekin gora ta beera ibiltzeko gogoa daukan mugazai txaldanik ote dagoanik. ¡Txabola-báñenean egon zitekean bezin ederkil! Baita gu ere, obeto giñake geren etxeetan; ez emen euritan, garai onetan, toki onetan, ezkontz-efastuna sasi-tartean galdu ba-lizaigu bezela. Ta ez da ori okeéna, arantz madarikatu auek suduña laŕutu didate, laŕua bera uzten ez ba-dut; ta, egia, uztekotan naiago dut zoñoarekin astea, balio duanagatik...

Ez zan iñortxo ikusten. Zilargiñarekin asper-asper eginda zeuden ta orduantxen al zuanak al zuala asi

bear zuten «Tira, abia gaitezen», Juantxo-k deituta, bien artean ostikoz zutitu zuten :

—Tira, jaíai neri alik-eta bizien iñon gelditu gabe —azkenengoz itzegin zuan.

Agindunak agindu ta bereala antxen ikusi zitezkean ilunpean, basakatuen antzera, iru lagun makurtuta muga igarotzeko unean. Bizkar-gañeko zamaz eñaz ezagutu zitezkean zijoazenak : gurpila ta meta aundia, Juantxo ta Antonio, ia alkaéen ondoan; atzeraxeago, bakaluarren loditasunezko zoñoarekin, erlojero alpera.

Mugari aldez beste eginda bereala beerakoa zuten ta asitzea asi ta bat-batean úruti xamarétki «jalto!» egin zuten. Juantxo-k koñikari geiago eman eta besteak ere bai. Andik pixka batera, osto ta adar tartetik azkañik zijoazela, gar batez euri tanto guztiak argitu ta ñanba! tiro baten ots izugaria entzun zan. Ta Antonio gixajoa, goitik beera zilipurdika, mendian beera erori zan... bilduñarekin.

Iñorak ez zuan gelditzea uste. Bilduñak akuñtu zituan ta berebiziko laisterka zeramaten irurek beren zamak eta guzti. Antonio-k —bere zamarekin bi lagun alkañi lotuta esan zitekeana— naiko piriliaka eginda gero áltxa ta ekin zion, naiz buruko txapela bertan galdu.

Laisterka eñezago eginaéen bidetxigor bateri lotuziran ta itzik egin gabe —alkañekin zetozela bai-zekiten— ekin eta ekin eten gabe beti malda beera zijoazen. Lur-bustian ifixtatuta txandaka erori ta jaikitzen ziran. Ta Antonio alako batean lengoaz gañera erorita eskua atze-aldeko geri-azpian zebilela, onela bota zion ziñargin lasaitu asi-beñiak :

«¡Villagarsia,
árasekazak atzia!»

ta «ji-ji»-ari emanda ala ere ba'zjoan auéra.

Urena ez dakigu amildegia baten zulora nola ez ziran joan. Mendi-ebakidura baten ertzetik, bide estua ala ere, aidean igaro ziran ia amildegia ikusten ez zala. ¡An izango zan lenbiziko Antonio añeketa artan!

Aien atzetik ez zan ezere nabaritzen. Laisterka ta laisterka muga bitartekoak askoz luzatu zuten, soka laga ta laga mutuña eruz u'rundu zitzaien.

Mendi-bea arápatzeko uren zebiltzan. Bean eureka, zabal xamaña; baño igarotzeko zubia ere bai. Araño iritxi ziran. Zubia egurtzar bat usteltzen asia besterik ez zan. Eraka ba-zan ere, dingili-dangala, Juantxo-k beste mutuña arápatu zuan. Bigañena Antonio saiatu zan. Eta, edo azkarégi asi zalako, edo, nik uste dutanez, zoñoan bi lagunen zatiak zeramazkialako, ala egurtzar arek noizbait autsi bear zualako, erdi-aldean dingili-dangala ari zan artan, eguría bi paska egin ta ikaragazikoz buñunbarekin ura jo zuan zubiak.

Anton bat eta Anton bi
Antonio putzura erori.

Guk ez dakigu ur aundian erori ba-zan obeto edo okeíago izango ote zan, agidanean lotuta zegoan bezela ezin izango zuan igari egin. Bestetik ari ta ura-tartean erorita sekulako tankatekoa artu zuan Antonio gizajoak. Zilargiñak orduantxe egiten zion oña jartzea zubiari ta utsarengatik ez ziran biak joan. Antonio erortzen ikusi zuanean, iñoren bilduriak ez duaren lasaitasunarekin, «ji-ji»-ari elduta lertu beañean asi zan pañez.

Juantxo auña artuta zijoana oso ikaratu zan austiaren buñunbarekin; gero zilargiñaren paña nabarituta atzera etori zan bareago. Otsak bereganatu zitzakean mugazaiak eta len urutiratutako ariskoa ber-

taratu zitekean. Egiñalean ari zan Juantxo azkar ibili zitezen, zilarginak naiko «ji-ji» ezin egin artean.

Eroriko ba-zan, eroriko ez ba-zan, lafi asko ibili zan zilargina ere ari-tartean batetik bestera parari ezin eutsirik. Antonio nolabait altxa ta asieran nekez asita ura ere azkaean zan, zilarginari ezere oartu gabe.

Ez dugu aiek «Bordategi»-ra iritxi baño len ibili zitzuten gora ta beerak, ezker ta eskubirak, aipatzeko ustea. Eri-ingurutik ibili ziran uruti xamar. Azkenez, «Bordategi»-n sartu ziran: lenbizikoa Juantxo, bigaena ¡Antonio!, bere zama audiarekin blei-blei eginda, ta azkena zilargina bizkaŕ-utsik. Amildegi baztaretik igaro ziranean goitik beera bota zuan bere zoŕoa ajolakabeak laisterkari bizi geiago emateaŕen...

XX

B I D E Z - B I D E

Igande-goizean, mezatarakoan, Mirele ta Martin batean gelditu ziran alkaárekin ibiltzearen toki ta garaiaz.

Irakurlea arituta egongo da azteazkenetik igandearrarekin alkaárekin egon gabe nola diteken. Zer asko ba'dago, ordea; batetik beti aukerarik ez, bestetik asieratik guztien auéan azaltzea ondo iruditzen ez. Baño, batez ere, bestea zioa. Mirele-k abindu zion igande-aŕatsaldean biak alkaárekin joango zirala egurazteria. Abinta órek asko ta asko poztu zuan Martin. Martin-ek zorion guztiak opa zizkion bere buruari. Burua aréta eske zegokion gazteari. Eskea, eskeŕa.

Baldin biotzak «oakio» esaten ba-zion, buruak «ez estutu»; baldin arek «atera adi», onek «egon geldik». Ta kilimolo ófetan auxe zebilen tarteko : bat edo bestegatik igandekoak utsegin zezaiokearen bildura. Bildur ematen zion-eta, nola-ala asita, edo -zerbait tarte zala, joan eziňa aipatuko ote zion. Ez nai Martin-ek ófelakorik entzutea. Uste bakaŕak ikaratzen zuan. Luzeak zitztaizkion egunak; baño luzeak luze, nekez ba-zan ere, gogoz igaroko zituan, azkenez Mirele-rekin Usategira joateko zoria izango ba-zuan.

Bein-edo begiratu zuan zubito beretik garai berean Mirele ote zijoan. Orduan, noski, beaŕekoa izango zuan arenganatzea. Munduko maitale guztiekin onela alkar-aditzen dute. Bein batez ikusi ta atsegin duten neska-mutilek, beste aztarnik ez ba-dakite, urengo egunean garai ta toki berean azaltzen dira; iñork esanda ere ba'dakite ori.

On dana ongi utzi oi dugu obearen itxaropenean. Naiago izaten dugu ifxoegitea ta muxika ondo elduta jatea.

Beste aldez, bat-bateko alkartzeak edozerk itxuragetu lezazkike. Gerok askotan ez gera izaten guk nai bezelakoak. Utsak oker aundiak lekarzkike, ezin zuzendu alakoak askotan, berdintzeko abagunea galdu ba-da. Usategirako txango artan, ordea, naiko beta izango zuan ta, edo berak uste baño txaldanago izan, ala aldarte txaría ontzeko arteza izango zuan.

Martin, beraz, pozik zegoan.

Ordu bi t'erdiaik baño lentxeago Martin zai zegoan Olarte deritzan Usauri-ko auzoan. Zutik, eskutzik, zeregiñik gabe, egonaldiari itxura kentzeařen, batean txistua jo, bestean eskuak sakelan sartu ta lurari begira, ba'zebilén, an orduko emen, joan-eforíak egiten. Bestetan, oargaria zitzaion ainbeste aldiz ikustez aspertuta zegoan edozer. Arpegia gaintzurituta ez-ikusia egiten zuan geienetan. Bidez zijoazenak ez zioten kezkarik ematen: «áratsalde on» eta ixo. Lagunen bildur zan. Baita ere iñongo leiotik bürüren bat azaltzen ba-zan.

Ordu bi t'erdiaik baño geroxeago enparantzaren erditik zear ba'zioan Mirele. Zuria soñekoa, zuriak oñetakoak, espartziñak; buruko iléa oria ta mototsaren galartzua gorria. Ezagun zuan arpegia garbitu berria zuala.

«Oñak zebilzkin aidean».

Kale ilun artatik zetoréla Martin-ek ikusi zuanean usoa zimaur tartean iruditu zitzaion. Artu zuan poza ez da esateko. Begiratu lezaiotekean orain. Bi bider poztu zan, bein bakartsu geiago ez egoteagatik eta

Mirele-rekin alkartzeagatik beríz. Bere gogoz laisterka joango zitzaion. Buru-biotzak, orain ere, atze-auérera bultzatzen zuten ta, dapa-dapa, iria ta zoriona zerizkiola, bideratu zitzaion.

Martin-ek aratsalde-onak eman bitartean Mirele-k onela itzegin zuan.

—Ez goaz Usategira.

Egia esateko arítuta gelditu gintzaion zubiko asmoaz. Bein asi bear eta biak bakařik aratsalde guztirako mendian gora asiko al ziran ba? Garaia berfaratu bezela, gero ta bildurgariagoa zitzaion egiteko ura. Lagundu, bai, lagundu; gote zuan oren uruti joateko bearik? Agidanean geiegizko abintzea egin zion. Martin-ekin egotearen gozoak ustez baño auérragoko joatea eragingo zion. Ora bada, damutu.

Martin-en ametsek bat-batean lurá jo zuten. Orduan bai eskutsik gelditu zala ta buru-uts ere bai.

Biak oso-oso sendatuta zeudela esatea aztuta geunden. Martin-ek ez zuan lotalurik kopetan. Ordea, orain beríro kemenak galdu zituan. Mirele-k ere igañi ta biak zimeldu ez ote ziran. Usategiko arazo ura ainbestetan buruan zebilkiola, ainbeste amets zoro zekarzkion arazo arek, orain bat-batean igesi ta aren tokian utsa, noski. Uréngo egunean «agur» esango zion Usauri-ri.

Baño gose diranek elika-bilä burua argia oi duten bezela, irudimena oso bizi zuion Martin-i. Ta Usategira ez zijoala esan ba-zuan, iñora ez joateko asmorik aipatu al zuan? Gela ilun batean leioa idiki zioten mutilari. Besterik ezean urutikoa aldean. Beste edozein tokitan ere ederki ibili zitezkean. Ta bein biak aterata, baldin bide beretik, nork zekian norañoko txangoa egingo zuten neska pozik eukitzeko arteza izatekotan?

Añigaría, Usategira ez joatea besterik buruan ez zuan neskak, norabait joatea ondo zerizkion.

Mirele zerbaitxo txospertuta gero, Martin-ek eldu zion :

—Usategira joatea nai ez ba-duzu, ez dugu bearezkoa ara joatea. Usategia nai ez ba-duzu, ez goazi; ni nai ez ba-nozu... goraintzi. Barkatua zaude. ¿Eta, enea, yingo zira ni gabe?

Itzak nastu xamar zerabilzkiala ezin ukatu, bañena ere ala zegokion, «goraintzi»-ren uren «ni gabe». Maitasunak eritik urun ikasitako izkera polita jaři zion ezpañetan eta gozoki esan ere bai. Mirele-k, berdiñean berdin, luñin gozoa nabaritu.

Martin-ek onela jařaitu zuan :

—Alegia, Mirele, Usategia urutitxo ba-derizkiozu, asi asi egingo gera ta zuk nai duzunean, an edo emen, etxerakoa egingo dugu. Nik alik-eta geien zurekin egotea nai nuan, toki ura ezin polítagoa dalarik. Baño zioa bestea ba-da, nereganako uste onak utsegin badizu, oretara ez dizut geiago eskatuko, emendik auéra ez ginjoazke.

Mutilak bere ontasuna onela erakutsi nai izan zion. Mirele beartuta zegoan uste txarik ez zuala azaltzera. Danetara ere ongi iruditu zitzaison mutilaren asmo zintzoa, naiz beñere okerik bururatu ez eta onela erantzun zion :

—Txarik ez dut iñoi zuregan uste izan. Ori ba'zenekike.

Ta onetan ari zirala Martin aufea artuta ba'zebilén poliki Mirele-rekin. Gutxi bear zuan ta zubitoa ikusten zaneko tokira iritxi ta gelditu ziran ara aldera begira. Egitea edo izatea onelako aldekoi batez izan ba-da, geroago aldekoia beritu danean, lengo egitea edo izatea bururatu oi zaigu. Alako abestia etxe batean

ikasi ba-genuan, ara bakoitzean kanta bera datorkigu.
Era berean zubitoak abestu zien, oroipen xamurá
gogoratu zitzaien.

—¿Ondo-ondo jaŕi ziñan, Mirele? —galdetu zion
Martin-ek.

—¿Eta zu orobat? —Mirele-k.

Ta ustegabean biak asi ziran bidez-bide.

(Jaŕaituko da).

Nombres vascos de los espacios intermedios entre casas

(Conclusión).

Se infiere que la mitad vendida era la contigua a la casa de lagares, para edificar en ella aprovechando su pared medianera. El precio 4.000 maravedís. Ante Pedro García de Cilaurren, escribano de Mondragón, siendo testigos Ochoa Pérez de Vergara (padre de doña Sancha), Juan Ibáñez de Oleaga, escribano, y Juan de Urrupain, cirujano. El linde que se llama *caño* en esta escritura se denomina hoy *carcava*, y también *barbacana* en algunas escrituras.» Debo al señor Guerra, a más de estas noticias, las siguientes : «Confirmo a V. mi carta de ayer, y en ampliación de la misma se me ocurre que en la escritura de 1468 la frase «Melena-solar» expresa más bien el concepto castellano de «sobre yermo», de donde naturalmente se deduce que «melena» equivale en ella a «inedificado», y por tanto fué tomada esa palabra de su ordinaria aplicación a «calleja» o espacio comprendido entre casas. El terreno enajenado en la escritura era, poco más o menos, el que indica este diseño.

CALLE QUE SUBSETE CALLE DE CASILLA DE JUAN MARTÍNEZ ARAMAYO	CAÑO, HOY KARKABA	CASA DE LAGARES DE OCHOA BAÑEZ DE ARTAZUBIAGA
	CALLE FERRERÍAS	

Databa sin duda el nombre de época en que, no existiendo la casilla de Aramayo, el espacio comprendido desde la calleja a la Casa de lagares estaba libre, y era «solar de la calleja» o «Melena-solar», que demuestra ser cierta la suposición de usted.»

Uno de los clásicos del euskera emplea la palabra *belena*. Aludo a don Juan Antonio Moguel, autor de la obra manuscrita *Kristiñau-Ikasbide luzea*, cuya paternidad le fué atribuída, aunque con alguna duda, por don Juan Bautista de Eguskiza en su discurso de contestación al de ingreso en la Academia de mi inolvidable hermano Carmelo (q. e. p. d.) (19). Posteriormente, nuestro benemérito compañero ha podido comprobar que no anduvo descaminado al enunciar su sospecha; y en la labor de concienzudo análisis que está haciendo de aquel libro, ha advertido, entre otras de interés, la siguiente frase: *ondotik mina atera eta belenatzara botatia...* Se refiere al castigo que debe imponerse al blasfemo, consistente en arrancarle la lengua y arrojarla a una letrina. Letrina significa *belena* en vizcaíno, según afirma Azkue en su Diccionario, que localiza el uso de aquella acepción en Bermeo, Guernica y Durango. En Bilbao se dice *belena* del «sedimento negro y asqueroso que se forma en el fondo y orillas del Nervión, y se descubre y huele, y no a ámbar, en marea baja» (20). Es circunstancia que no debe omitirse la de que los vocablos *karkaba* y *belena* coinciden en sus acepciones de espacio entre casas y de letrina. Esto induce a presumir que fué aquélla su primitiva significación, que luego se hizo extensiva a los depósitos de la inmundicia más repugnante, acaso porque los callejones interpuestos entre los edificios nunca fueron lugares en que se esmeraron los cuidados de la policía.

A don Serapio de Múgica le animó el conocimiento de la *belena* bilbaina a adjudicar a las *belenas* donostiarras un origen vizcaino y a forjar una etimología de aquella palabra, derivándola del vascuence *bal*, *bel* (negro), elemento alusivo a la suciedad que suele imperar en los pasos angostos que separan unas viviendas de otras (21). Ninguno de los dos supuestos es admisible. Los datos antes consignados son, a mi juicio, más que suficientes para probar la oriundez navarra del término que se usó en Guipúzcoa para expresar los callejones estrechos a que se viene aludiendo. No hay que olvidarse de la influencia que el Reino Pirenaico ejerció sobre la Provincia, y especialmente sobre su capital, aun después de su emancipación de la Corona de Navarra. Como tampoco hay que despreciar el hecho de la íntima conexión que mantuvo ésta con Francia, de donde, sin apoyo de ningún elemento euskérico, se introdujo aquella voz.

Creo recordar que hace ya años se ocuparon varias personas de explicar en el diario *Euzkadi* la etimología de la palabra *belena*. He deseado, antes de redactar estas cuartillas, conocer aquellos trabajos; pero las tentativas que para ello he realizado han resultado infructuosas. Así que, aun en contra de mi voluntad, he de prescindir ahora de hacerme cargo de lo que en el citado periódico se ha dicho acerca del particular. Una bondadosa y culta persona que me ha prestado eficaz ayuda en mis investigaciones de Derecho consuetudinario, me dice, con referencia a la villa en que reside, que entre las gentes es creencia común la de que es exótico el vocablo *belena*, pero que, sin embargo, alguien emparentaba ese término con el de *Belén*, con que es conocida la ladera de un

monte situado en el pueblo aludido. No es necesario ponderar la insuficiencia de este detalle local para juzgar de la oriundez de una palabra de uso tan extenso y dilatado. El P. Echalar, en el texto antes transcrito, nada dice del origen de *belena*; este silencio podría interpretarse como equivalente al reconocimiento de la estirpe vasca de dicha voz. Yo debo al Padre Echalar muchas y muy curiosas noticias relativas a las prácticas jurídicas del Baztán. En una de las cartas en que me comunica algunas de aquéllas, se refiere a los espacios intermedios denominados *belenas*; y a este propósito, advierte la presencia del elemento *bel* en *uspel*, *ospel*, *orbel*, *belaun*, *Osanbela*, *Jaizkibel*, *Belate*, *Belaustegui*, *Belauntza*, *Osinbeltz* y en *Aebelteso*, palabra que figura en la lápida romana de Andre-arriaga. También me dice que en aquel valle llaman *balengo* [(AN-b), puerta rústica que se abre y cierra girando = AZKUE, DVEF], *balango* a lo que en otros lugares denominan *langa*. Seguramente la lista de vocablos en que juega *bel* como tema será muy nutrida, pero ello no nos autoriza en este caso a formular ninguna conclusión acertada conducente a establecer el origen vasco de *belena*. El propio P. Echalar, atento a algo que yo le expuse respecto al particular, apunta la sospecha de que la palabra *belena*, usual en Navarra, se deba a importación gascona o bearnesa. Yo no me atrevería a localizar en esas comarcas el abolengo de tal vocablo, que procede claramente del bajo-latín. Acaso por la íntima conexión del Reino Pirenaico con Francia, patente en documentos de la Monarquía de los Sanchos y los Teobaldos, haya sido el francés el que haya introducido aquel término en el léxico de los navarros. Su forma primitiva *benela* es hermana legí-

tima de la de *venelle*, expresiva de callejón; se observa que es empleada en ese sentido en los comienzos del siglo XIV; más tarde, sin duda, sirvió para denotar todo espacio angosto; y transformado en *belena* ha llegado hasta nuestros días, en que se destina a nombrar la escasa porción de terreno que aisla unas casas de otras. *Venelle* significa pequeña calle. Según el Diccionario de la Academia Francesa, es voz anticuada, que no se usa más que en cierta frase figurada, proverbial y popular, *enfiler la venelle*, que significa huir (22). Littré ilustra con profusión de textos el valor de esa frase, entre ellos uno del *Guzmán de Alfarache*, de Lesage : «C'est animal, irrité, ainsi qu'un taureau furieux à qui l'on ouvre la barrière, enfile la venelle, et, me passant entre les jambes, m'enleva de terre» (23). En documentos del siglo XIII se encuentra la palabra *venelle*. En nuestros días se vale de ella Brunhes para designar los espacios intermedios entre casas en Alsacia, Normandía y Salies de Béarn (24). *Venelle* deriva del bajo-latín *venella*, que ya se emplea en un diploma del año 648, según dice Carlos María Grandgagnage (25). Du Cange advierte en aquella palabra un diminutivo de *vena*, vena, en castellano, tomada en sentido figurado; se apoya esta hipótesis en el ginebrino *veniule* y en el bajo-latín *venula*, que se advierte en un texto de Hugo Falcando, historiador italiano de la segunda mitad del siglo XII, que recoge el autor del *Glossarium* (26).

No creo necesario apurar las citas para poner de manifiesto la oriundez románica de la *belena* navarra, cosa que, por otra parte, está en la conciencia de las gentes, como lo prueban los términos en que mi buen amigo don Juan Irigaray me daba cuenta de la presencia del fenómeno que expresa aquella palabra,

en Burguete: «... designándose a ese espacio intermedio en euskera *mokarte* y en erdera *belenā*, nombres con que aparecen designándose esos lugares en escrituras y documentos antiguos». Otros, no tan cultos como aquel amable informante mío, se han expresado en forma parecida en las ocasiones en que yo, al azar de un encuentro casual por pueblos y caminos, les he interrogado respecto al particular. Pero no todos participarán de esa opinión, pues muchos habrá que extremen su celo etimologista y se empeñen en proclamar que *belenā*, como *karkaba*, son voces de estirpe netamente euskérica. Para contener, en lo posible, sus ímpetus, me he ocupado con alguna extensión del examen de esas dos palabras, que no son las únicas que el uso ha recogido de otros idiomas para designar los espacios que se interponen entre las viviendas.

PATIYUA.—No es preciso ponderar el origen castellano de este vocablo. Se usa en Orio, y denomina a algunos casos muy típicos de espacios laterales. También es conocido en Guetaria, donde sólo se ofrece el fenómeno en algunos restos de edificaciones antiguas que existen en el barrio de Errerieta, situado en la confluencia de las carreteras de Zarauz a Zumaya y la de Meagas a Guetaria.

KANTOIA.—Participa esta forma de la misma procedencia de la anterior. Es aplicada en Ceberio.

